



ARGIA



NOLA BERMATU POPULAZIOA ZUBEROAN?

» **IMANOL OLABARRIA:** "SINDIKATU BERTIKAL BAKARRA ZEN LEHEN, ZAZPI-ZORTZI BERTIKAL DIRA ORAIN"

» **'ERREMENTARI' FILMAK** ARABAKO EUSKALKIA BERPIZTU DU

» **EZKABAKO ESPETXEA:** PRESOK EMAKUME SAREEI ESKER BIZIRAUN ZUTEN

» **JABIER MUGURUZA:** "NIRE MASKULINITATETIK ELEMENTU FEMENINOA ERE ERREBINDIKATZEN DUT"





GHKko lehendakari ohi
Ainhoa Intxaurrendietari
elkarrietzeta.

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Intxaurrendietari eta Errazkinen aurkako epaiketa irailean ZER DAGO JOKOAN?

- “Ez ukitu negozio pribatuak”. Politika eraldatzailea eskuak lotuta geratzeko arriskuan
- Enpresen mesedetan jokatu duten hainbat adibide ilun

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Fauna publikoa
- 10 Afganistan berria sutu dezake Frantziak Malin

IRITZIAK

- 17 Alaia Elorrieta Agirre
- 18 Iván Giménez
- 19 Jose Ignazio Ansorena Edu Zelaiaeta Anta
- 20 Katixa Dolhare-Zaldunbide



Amaia Kowasch iruindarrak Ezkabako presoen biziraupenerako ezinbesteko izan ziren emakume sareei ahotsa eta aurpegia jarri die. SAREAK EHOTZEN

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIAKO AZOKA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 46 ARTEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 49 DISKOA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: DAU GARCÍA DAUDER
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: JOSEBA LARRATXE

SAKONEAN

- 12 | Imanol Olabarria: "Francoren heriotzaz geroko krimenik handiena izan zen Martxoaren 3koa" / Miel A. Elustondo
- 22 | Zuberoan bizi eta lan egin, herria bizi dadin / Mikel Asurmendi
- 27 | Jessica Martin: "Ikusten gaituzte gurgildun aulkian eta pentsatzen dute inutilak garel" / Mikel Garcia
- 30 | Errementari filma: Fikzioa euskararen territorio libre / Dabi Pietra
- 32 | San Kristobal gotorlekuko emakume solidarioak/ Urko Apaolaza
- 42 | Jabier Muguruza: "Etengabeko txinpartan bizi gara, baina gauzak askoz zailagoak dira" / Kepa Matxain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA ARGIA JENDEAREN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza.
Zuzendaria: Estixu Eizagirre.
Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estixu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador.
Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Carmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria.
Tel.: 943 371545.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa:
Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina.
31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus

Harpidetza: harpide@argia.eus

Erredakzioa: kazeta@argia.eus



PANORAMA

Bide bazterretik plazara

"Herriko faxistak ziren, guardia zibilak ziren, falangistak ziren, katolikoak ziren, Birjinaren Eguna zen eta ondoren otoitz egitera joan ziren. Gora jainko maitea!". Fermin Balentziaren hitzak dira, Maravillas kanta aurkezteko. 1936ko abuztuaren 15ean 14 urteko neskatoa aitarekin batera atxilotu zuten Larragan, udaletxean bahitu eta guardia zibilek behin eta berriz bortxatu ondoren, hil egin zuten, aitarekin batera. Haren gorpu biluzia txakurrei eman eta ondoren erre zuten. Maravillasen antzera, beste 3.000 pertsona baino gehiago hil zituzten, gerra frontierik izan ez zuen Nafarroan. Trantsizioak inposatu nahi izan zituen isiltasun eta ahanztura pitzatzen ari dira. Eta horren beste froga bat da, 82 urte ondoren, Iruñeko Lezkairu auzoko plazan egotea, *Larragako loretxoaren* izenaren eskutik, faxismoaren biktima guztien memoria bizia. Ahazten dena, berriz gertatzeko aukera dagoelako. Irudian: Josefina Lamberto, Maravillasen ahizpa, Iruñeko udaleko hainbat zinegotzi eta alkatearekin.

Argazkia: Jagoba Manterola (Argazki Press) · Testua: Axier Lopez



Aitzol Atutxa aizkolariak (@Atutxall) bere esperientzia kontatu du Twitterren:



“Atzo, ‘euskal kirolaren Deia sariak’ ospatu ziren eta bertan saritua izan nintzen. Nondik datorren nire tristura? Gala honek euskaraz izan zuen bakarra bere izenburua izan zela. Oso gaizki Deia eta antolatzaileak. Ez dakit noren ardura den baina erantzularen bat egon behar da seguru”



“Sarituak oholta gainera igo eta jaitxi ari ziren euskarazko hitz bakarra batzuen izen-abizenak izanik. Euskal hiztunak ere igo ziren baina beraientzat galderak ere gaztelaniaz ziren”



“Nire txanda etorri eta nire galdera ere gaztelaniaz. Nire erantzuna ordea euskaraz izan zen eta horrelaxe egin genuen elkarrizketa. Baten batek aurkezle eta ikusleenganako errespetu falta zela esateak ez ninduen haserretu baina bai tristetu”



Euskara eskatzea “ez da beharrezkoa”, esan du Javier de Andrés Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak. Modu honetan, “herritarrek aukera gehiago dituzte”, gaineratu du.

Euskaraz jakitea ez dute eskatuko EAEko 340 lanpostu publikotan

Lander Arbelaiz Mitxelena
@larbelaiz

PPren Gobernuak Lan Eskaintza Publiko berriaren deialdia zabaldu du. EAEn 340 plaza esleituko dira administrazioan lan egiteko eta lanpostu horiek lortzeko euskara ez da aintzat hartuko, ez behintzat eskakizun gisa.

Javier de Andrés Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak garbi utzi du neurri horren zergatia: “Madrildik iritsitako lan eskaintza denez, ez ditugu autonomia erkidegoetako hizkuntzak eskatu; ez da beharrezkoa”. Modu honetan postua lortzeko aukerak “errazagoak” direla nabarmendu du De Andrések. “Herritarrek

aukera gehiago dituzte”, gobernu popularraren ordezkariaren iritziz.

“Hiztunei iseka”

Euskara albo batera utzi izanak hautsak harrotu ditu. Garbiñe Petriati Behatokiko Hizkuntz Eskubideen kideak salatu du “tokian tokiko hiztunei iseka” egiten diela neurri horrek eta Euroitunari begira “iruzurra” dela.

EH Bilduk “Gobernu espainolaren gaitzespena” eskatu du Eusko Legebiltzarrean, baita lan deialdia zuzentzea ere, euskararen ezagutza aintzat har dezan. Rajoyren Gobernuari legea urratzea egotzi dio koalizio abertzaleak.

“Lasai eta indartsu noa kartzelara, badakit herri osoa dudala atzean”

JULEN IBARROLA

Julen Ibarrolari urtebeteko kartzela zigorra ezarri dio Espainiako Auzitegi Nazionalak, errotulatzailer batekin pintaketa bat egiteagatik. Terrorismoa goratzea leporatzen diote. “Terrorismoa Euskal Herrian gazte mugimenduan parte hartzea da, ikastetxean hezkuntza herrikoi eta euskaldun baten alde lan egitea, greba orokorretan piketeetan parte hartzea... Erabaki judizial honen atzean erabaki politiko bat dago: militantzia politikoa zigortzea”. **AIARALDEA.EUS (2018-02-09)**



FAUNA PUBLIKOA

**"Zuzeneko harremana dago
jaiotza-tasaren defizitaren
eta genero-derberdintasunen
iraunkortasunaren artean"**

**Beatriz Artolazabal, Eusko Jaurlaritzako
Enplegu eta Gizarte Politikarako sailburua**

Generoaz eta klase sozialaz



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Beatriz Artolazabalek titular batzuk lortu zituen duela hilabete batzuk, adierazi zuenean Diru Sarrerak Bermatzeko Errentatik (DSBE) hilean kobratzen diren 650 euroak nahikoa direla bizitza duina edukitzeko. Zenbait haserretu ziren. Zenbaitek, sen praktikoagoarekin, begiratu zuten zenbat kobratzen duen Enplegu eta Gizarte Politikarako sailburuak: urtean 87.000 euro baino gehiago. Duintasunean ere klaseak baitaude.

Iazko polemika horretaz akordatu naiz Artolazabal entzun dudanean genero-desberdintasunaz eta jaiotza-tasaren defizitaz hizketan, izan ere, DSBEaren inguruan sortzen diren debate publiko zakar samarretan, badago maiz ezkututzen den datu bat: emakumeek jasotzen dutela nagusiki laguntza hori ia adin tarte guztietan, besteak beste 25-39 urte arteko 10.000 emakumek baino gehiagok. Igual erotu naiz, baina patrika hilean 650 euroekin "duinduz", haur bat edukitzeak ez dirudi munduko aukerarik desiragarriena.

Metafora desarrollista batekin esplikatzen: sailburuak jaiotza-tasari buruz adierazi duen kezka errail bakarretik joan daitekeen trena da, populazioa berritu behar dela gehienok onartzen dugun baldintza baldin bada. Problema da, errail berean, kontrako norabidean eta abiadura handian, beste tren bat datorrela: Artolazabal kide den gobernuaren politika eta haren lehentasunak –zeintzuetan, metafora borobiltzeko, tren-azpiegiturek pisu handiegia duten–.

Buruketa balitz, galdera litzateke noiz gertatuko den bi trenen arteko talka. Politika denez, erro-erroko aldaketak behar dira, kontraesana aspaldikoa baita: lanaren esplotazioa maximizatzeak jartzen du arriskuan lan-indarraren erreproduktzioa bera, Silvia Federicik nabarmentzen duen moduan. Irakurri ote du Artolazabalek *Caliban eta sorgina*? ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



KONTUZ
IKUSENTZULEOK!

...INKESTEN ARABERA
FAKE NEWS
EZ HOMOLOGATUEN
KOPURUA NABARMEN IGO DA
AZKEN SASOIAN...



ADUR

ANALISIA



Ikastetxeko testuinguruaren arabera euskalduntzea? Hori tranpa da



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: EAJ-PNV

EAEn Hezkuntza Akordioa bideratzeko oinarriak aurkeztu ditu Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, eta 16 urterekin ikasleek euskaraz B2 maila lortzea jarri du helburu, baina praktikan adar-jotzea dirudi: helburu mailakaturik izango da, “modu progresiboan” egitekoa, “zentro bakoitzaren errealitatearen arabera”, eta gainera, egungo hizkuntza-ereduak gainditzeko asmorik gabe.

Ikasleen euskara-lorpen adierazleak ikastetxearen ingurune soziolinguistikoaren arabera izatea planteamendu tranposoa dela argudiatu zigun Aitor Idigoras irakasleak: “Ingurune soziolinguistikoa inoiz ezin da aitzakia izan lorpen adierazleak malgutzeko, ala legeak jasotzen du matematiketak emaitzak baxuagoak izan daitezkeela Ezkerraldean, ingurune sozioekonomiko okerragoa dutelako? Juxtu alderantzizkoa behar luke administrazioaren planteamenduak: baldintza soziolinguistikoki okerragoak ditu ikastetxeak? Ba ikastetxe horretan indarrak jarriko ditugu, euskara mailan gainerakoen pareko lorpen adierazleak bermatu ahal izateko”.

A, B eta D ereduak gainditzeko ere eragileen aspaldiko aldarrikapena da, baina Uriarteren hitzetan, lehenengo helburua jarri nahi dute (B2 irteera-profila) eta “gero ikusiko dugu helburua lortzeko [ereduen sistema] nahikoa den ala aldagetak egin behar ote diren”. Nola izango da nahikoa ereduen sistema? B ereduaren ikasi duen %73ak ez du B2 maila lortu, eta berriki argitaratuenez, 200.000 ikasleek baino gehiagok euskaldundu gabe bukatu dute derrigorrezko hezkuntza.

Hizkuntza-eredu bat eta bakarra?

Hiru ereduen sistema gainditzeko borondate gutxi ikusten zaio EAJri. Uriarteren alderdikide Jone Berriozabalek hala dio: “Markoa gainditzeko zer da, eredu bat eta bakarra herri guztientzat? Eredu bat eta bakarra ikasle guztientzat? Horretaz ari bagara, gu ez gatz bat eta gainera ez da posible, gure buruari eman diogun legegiaz ez duelako onartzen”. Katalunian, baina, eredu bat eta bakarra dute, murgiltze eredu edo D eredu. Gauza bat argi dago, Sortzen Elkarteak dioen moduan “akordioak ezinbestean jaso behar du ikasle euskaldun eleak bermatuko dituen eredu orokortua, bestela ez da idatzita dagoen helburua lortuko”.

EKONOMIAREN TALAIAN

EAJk faktura pasa dio ELAri



Juan Mari Arregi

Duela gutxi jakin dugu EAJren esku dagoen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunak sindikatuari eskatu dizkiela grebak egiteagatik ordainketaren bat jaso duten langileen nor-tasuna, abonaturako kopuruak, eta hala bada, 2014, 2015, 2016 eta 2017 ekitaldietako erretentzio datuak. Hau da, Bizkaiko Ogasunak erabaki du euskal sindikatuen erresistentzia kutxa ikertzea. Kutxa hori gehien erabili duena ELA izan da. Berak emandako datu ofizialen arabera, 2008 eta 2011 urteen artean 13,7 milioi euro ekarri zituen erresistentzia kutxara –bere gastuen %15,1– eta 2012 eta 2016 artean 19,1 milioi izan ziren –gastuen %16,24–.

Hain justu, eta kurioski, joan den urtean Bizkaiko zahar etxetako 370 eguneko greba luzea gidatu zuenean erabili behar izan zuen gehien erresistentzia kutxa ELAk. Eta greba horretan, Bizkaiko Aldundia oso gogor inplikatu zen, sindikatuaren eta ordezkari politikoen arteko konfrontazio serioa eraginez; ELAk eta EAJk elkarren artean duten harreman mikatzaren erakusgarri da hori, Urkullu lehendakaria eta buruzagitza jeltzaletik hasita. ELAk ziurtatu du 38 urte daramatzala euskal ogasunek jarritako irizpideak betetzen eta azaldu duenez “inoiz ez da erresistentzia kutxako indemnitazioa lan errenta gisa hartu”.

Argi dago Bizkaiko Ogasuneko zerga ekimen hori EAJk sindikatu abertzaleari pasa nahi dion faktura dela. Ez du “kontrabotererik” nahi, ezta inork bere inguruan itzal egiterik ere. Sindikatu otzanak nahi ditu. Hobe luke Ogasunak ohiko zerga-iruzurrean sakontzea, ongi baitaki non egiten den iruzurra eta ez zaio hain arrotz. Dagoen lekuan egonik ere pertsegitu beharko luke.



Grebarako atonduak

GASTEIZ. Gasteizko estatua ugari martxoaren 8ko greba feministari begira atondu dituzte Gasteizko Greba Asanbladako kideek. "Gaurkoan amantalak kalera atera eta grebarako deialdia zabaltzen jarraitu dugu. Grebarekin bat egiten duen emakume* oro berdina egitera animatzen dugu, emakumeok* egiten dugun ezkatututako lan ez onartuak eta gutxietsiak azalera atera ditzagun", adierazi dute.

GASTEIZKO GREBA ASANBLADA

Macronek ateak itxi dizkie Korsikako abertzaleei

Maddi Txintxurreta
@mtxintxurreta

Korsikara egin duen bisitan, Emmanuel Macron Frantziako presidentek muzin egin die abertzaleen eskaerei, eta Korsikako presoen aldeko amnistia ukatu du.

Eskaerak

2017ko abenduko eskualde hauteskundee-tan gehiengo zabalez irabazi zuten irlako bi alderdi abertzaleek, eta Macroni eskatu diote korsikeraren ofizialtasuna, autonomia handiagoa eta presoak gerturatzea, ondoren amnistia emateko.

Milaka manifestari

Aldarrikapen horiek hauspotzeko, Ajaccio hiriburuko kaleetara atera ziren milaka manifestari Macron irlara iritsi aurretik. Sekula irlako hiriburuan egin den manifestazio jendetsuena izan da, Gilles Simoni Korsikako presidentearen esanetan.

Erantzuna

Frantziako presidentek abertzale korsikarrei erantzun die "konplazentzia, ahanztura eta amnistiarik gabe" jarraituko duela. Komando korsikar batek 1998ko otsailaren 6an hil zuen Claude Érignac prefetaren omenaldian esan ditu hitzok.

PENTSIOAK



%0,25

igo dira aurtien pentsioak Espainiako Estatuan, Kontsumoaren Prezio Indizea %1,1 igo den arren. Egoera salatzer atera dira Hego Euskal Herriko hainbat herritan.

700 euro kobratzen dituzten milaka pentsionisten kasuan adibidez, 1,75 euro baino ez da igoko haien pentsioa.



TORTURA

Torturapeko testigantzengatik espetxean dauden zigorrak baliogabetzeko eskatu du Kalera Kalera dinamika. "Preso ugari askatasuna ekarriko luke automatikoki, eta hainbat iheslariri ere etxera itzultzeko bide emango lioke", adierazi dute.



PASAIKO SEGADA

1984ko martxoaren 22an hil zituzten Komando Autonomo Antikapalistetako lau kideen senideak Estraburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegira joko dute, Pasaiko segadaren auzia behingoz argitzeko.



SEXU ERASOAK

Udaltzaingoak tatutzaile bat atxilotu du Donostian, sare sozialetan 9 lagunek tatutzaileari sexu erasoak egotzi ostean. 14an igaro da epailearen aurretik. Pintadaz bete dute dendaren kanpoaldea, salaketa jarri duten emakumeei bakarrik ez daudela adierazteko.

Sahel kontrolatu nahian, Malin Afganistan berria sutu dezake Frantziak



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Urtarrilean bost urte bete dira Frantziak Malin *Serval* operazioa abiarazi zuenetik, Azawadeko tuaregen eta Ansar Dineko islamisten mehatxutik hiriburua babestu eta Bamakoko gobernuari laguntzeko herrialdearen iparraldeko lurren kontrola berreskuratzen. François Hollandek 2013an hasitako esku-hartzea indartu nahi du orain Emmanuel Macronek, baina hainbat ahots hasi zaizkio ohartarazten Frantziak Malin aurki dezakeela *yankiek* Afganistanen piztu bai baina oraindik itzali ezin duen infernua.



Emmanuel Macron lehendakari gazteak urtarilaren 19an ekitaldi solemne batean bildu zituen Frantziako armadako buruzagiak 1.200 militar hautatuekin batera Toulongo kaian ainguratuta dagoen *Dixmude* gerra-ontzian. Anbizioz betetako aldaketak agindu zituen: derriгорrezko soldadutza berrezartzea, armadaren aurrekontuak sekula baino gehiago indartzea, ahalmen nuklearrari eustea... eta terrorismo islamista suntsitzea.

Siria eta Ekialde Hurbilaz gain Macronek espreski aipatu zuen Frantzia Saharako basamortu bazterretan egiten ari den esfortzua: “Mundializazioarekin, Frantziaren interesak ez dira mugatzen gure mugetara. (...) Badakigu gure lurraldea defenditzeko batzuetan hemendik urruti borrokatu behar dela atentatuak antolatzen dituztenen kontra. (...) Ekialde Hurbiletik Sahelera, erabat gaude konprometituta mehatxu berrien kontrako lanean”. Esatea errazago da.

Otsailaren 2an *Le Figaro* egunkariak bi orri eskaini dizkio Saheleko abenturari militarari: “*Serval* operaziotik bost urte pasata, Al Kaedak gangrenatzen du Mali”. 2013ko urtarrilean mundu osoaren pozerako frantsesek askatu zuten Tonbuktutik mitikotik idatzi du Thierry Oberlek: “Jihadisten okupazioa bukatu eta bost urtera, bazterrak ilun daude hemen. Gehiengoaren diren beltzak mesfidatzen dira ‘larru zuriez’, arabiarrez”. Tonbuktutik alkateorde Bubakar Sadekek esan dio: “Lehen zegoen jende ezberdi-

nen arteko sinbiosia bukatu da. Hemen ez dago buruhaustea besterik. Estatuko agintariek diote bortizkeria hondarrak geratzen direla, erotutako jendea, baina nola nahi duzu bakean sinestea jendea kale gorrian hiltzen dutenean eta gobernu txar bat nozitzen dugunean?”.

Eusebio Valek *La Vanguardian* idatzi duenez, denborarekin Paris hasi da bizi-tzen Sahelen lehenago AEBk Afganistanen eta gero Iraken bizi izan dutenaren antzeko egoera, “etsaiak berriro agertu dira, hemen segada eta hor atentatua, beren alde dauzkatelako Estatuaren ahulezia, inguruaren ezagutza eta komunitateen arteko liskarrak”.

Eskualdean militarizazioak daraman abiadura azaldu du “*Sahel, escalade guerrière*” kronikan *Afrique-Asiek*, berrikitan paperezko hilabetekari ezaguna itxi arren edizio digitalean jarraitzen duenak. Eskalada militarren adierazgarritzat aipatu du Burkina Faso, Mali, Mauritania, Niger eta Txadeko militarrek eta Frantziako osatu duten FC-G5 indar bateratua.

Martxorako FC-G5k edukiko ditu 5.000 militar afrikar 7 batailoitan antolatutako Frantziak 2013tik bidalitako 4.000ekin elkarlanean. Horiei gehituko zaizkie Nazio Batuen Erakundearen MINUSMA misioko 12.000 kasko urdin. Ahaztu gabe, hurbil, AEBek Afrikako komando zabalaren barruan Nigerren dauzkan 800 soldaduak.

“Sahelen eta Mendebaldeko Afrika osoaren militarizazioa, nagusiki Frantziak eta AEBek daramatena, erukirik

gabe doa aurrera”, idatzi du Gilles Olakounte Yabi International Crisis Groupen Afrikarako zuzendariak. Bere analisiari izenburu adierazgarria ipini dio: “Drone armatu frantses eta amerikarrak Mendebaldeko Afrikako zeruetan, horiek seguru sentiarazten al zaituzte?”.

Gerraren zabaltzeak Saheleko herri-tarren artean menpekotasun irudipena handitu arren, lekuko eliteak pozarren daude, “gerra hauentzako aukera ederra baita askatasunak mutilatu, herrialdearen burujabetza desegin eta bertako baliabideak lasai ederrean arpilatze”, *Afrique-Asiek* bildu duenez.

Etsaiak ere lagun diezaguke zerbaitetan

Gaiotan informazio iturri ederra den *Orient XXI* hedabidean Abdelkader Abderrahmanek “Sahelen barrena ‘kaos eraikitzailea’ hedatzen ari dira” plazaratu du. Brehon Advisory aholkularitza konpainian ari da. “Malin egoera zaila da –dio Abderrahmanek– eta Sahel bolborategi arriskutsua bilakatu da, giroa oso nahasita dago. Eguneroko erasoren bat, auto edo armen lapurreta edo bahiketaren bat. Sarritan gertakizunok aipatu ere ez ditu egiten lekuko prentsak, are gutxiago noski nazioartekoak. Domino jokoan bezala, ezinegona inguruko herrialdeetara zabaltzen da”.

Historian atzera joanda, europarrek Afrika elkarren artean banatu zuten 1885ean Berlingo Konferentzian. Frantziako Inperioak Afrika Mendebaldea



Pascal Gyoten argazkian, militar frantsesa 2013ko otsailean herritarren ongi-etorria jasotzen Maliko herriren batean, Bamakora iristear ziren tuareg eta islamistei bidea moztu eta atzera egin ostean. François Hollandek agindu zuen Serval operazioa orduan. Bost urte geroago, Serval bihurtu da Barkhane, Malikoez gain Burkina Faso, Mauritania, Niger eta Txadeko militarrek elkarlanean jarritz frantsesen aginduetara. Emmanuel Macronek Frantziarentzako estrategikotzat jo du Sahel kontrolatzea.

beretzat gorde zuen. 1960ko hamar-kadatik petrolioak eta beste natur baliabideek erakarri AEBak ere. 1997tik garrantzia berezia hartu du Afrikak amerikarrentzat, Pentagonoak ezarri zuenetik energia hornidura AEBen behar estrategiko nagusitzat. Persiar Golkoa bera baino garrantzitsuagoa gerta litezke etorkizunari begira Aljeria, Gineako Golkoa... eta Sahara bera, oraindik aurkitu gabeko petrolio hobiekin.

Txina ere azaldu zen, berehala afrikarren sozio komertzial nagusi bihurtuz. Europar eta amerikarrek afrikarren erabakietan muturra sartzen bazuten, Txinak bakean uzten ditu eta negozioen truke maileguak eskaintzen baldintzarik onenetan.

Zeren bila dabil Frantzia ofentsiba berriarekin? Ahmedou Ould Abdallah, NBEaren goi funtzionario ohia: "Fran-

tziak Libian eta Malin eskua sartuz nagusiki nahi dio eutsi bere potentzia izateari, NBEaren Segurtasun Kontseiluan egoteko eskubideari eutsi, munduaren egonkortasunaren berme agertu". Mali beti egon da Afrikan kolonialistek zera-biltzaten jokoen erdian, Doulaye Konate historiagileak esan duenez: "Mali kontrolatzen duenak kontrolatzen du Mendebaldeko Afrika, ez bada Afrika osoa".

Badago arrazoi oso zehatz bat ere. Islamisten kontrako garaipen handiak iragarri dituzte frantsesek, baina horien irudirik ez da, kontakizun independenterik ere ez. Bertako lekukoek kazetariari esan diete frantsesek ihes egiten utzi zieten islamistei erabat inguratuta zeuzkatenean. Iparraldera, basamortura alde egiten utzi?

Gakoa egon daiteke AREVA konpainiak Arliten -Nigerren, Malirekiko

muga ondoan- dauzkan uranio meategi handietan. Zeren, uste denez, askoz uranio hobi gehiago daude oraindik usiatu gabe eskualde horretan, eta Frantziari interesatzen zaio beste inork hor muturrik ez azaltzea. Mali iparraldeak, gainera, negoziatu du hegoaldearekiko autonomia... frantsesei esker.

Berlingo hitzarmena eta 130 urte geroago, Afrikaren banaketa berria jokatzen da. AEB, Txina, Frantzia... munduko potentzia handiak lehian dabilta bermatzeko beren hornidura petroliotan, metal preziatuetan, laborantzarako lurretan... eta baita basamortuak hondarpean gordeta dauzkan ur gezetan ere.

Frantzia sartu bai egin da Saheleko gerran, baina urteak pasa ahala islamistek egurrean darraite eta Mali ez da iritsi estatu normal izatera. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Imanol Olabarria

«Francoren heriotzaz geroko krimenik handiena izan zen Martxoaren 3koa»

Urtero da martxoak 3. Bost hildako Gasteizen eta ehunka zaurituak, balaz gehienak, 1976an. Hilabete batzuk lehenago etorria zen Gasteizera lanera Imanol Olabarria. 1975eko azarotik martxoaren 3ko txikizio hura bitartean hainbat fabrikatan egin ziren protesta, asanblea eta mobilizazioetan parte hartu zuen. Are, eragileetakoa izan zen.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gasteizen zinen 1976ko hasieran.

Bai. Bilbotik etorri eta Michelinen sartzan saiatu nintzen. Akordatzan naiz, goizeko bostetan, fabrikako atean, testak egiteko zain, testak egiten eta zegokionari ematen. Fabrikakoak engainatzen saiatu behar nintzen, peoi hutsa nintzela adierazten. [Apaiz langile izana zen] Testa egin eta arduradunak etorri zitzaizkidan: “Halako galdera ez duzu erantzun”, “Uste dut modu intuitiboan erantzutekoa zela”. Esan orduko damutu nintzen. Peoiak ez du *intuitibo* hitza erabiltzen. Jakina, ez nien ziria sartu. “Peoi izateko ezgai”, eskutitza jaso nuen. Albotik esan zidaten beste fabrika batean, Cablenor zuen izena, langileak behar zituztela, ez zutela askorik ordaintzen, baina inolako test edo kontrolik gabe hartzen zituztela. Hala ere, soldadutza egina izatea eskatzen zuten, baina ni apaiz izana nintzen eta ez nuen egin soldadutzarik. Orduan, 37ko kupokoa nintzela esan nien. Eta lanera.

Urtarrilaren hasieran hainbat greba izan ziren Gasteizen.

Ez ziren hutsetik sortu, ez ziren lau demagogoren kontua ere izan, ezta alderdi edo sindikatu baten ekimena ere. Jendea Martxoaren 3ari buruz galdezka hasten denean, erantzun zehatzak nahi izaten ditu, baina, askotan, orduko egoera soziala ahazten du, orduko borroka. Francoren altxamendua eta gero, diktadura ezarri ondoren, biltzea debekatu zuten: ez zegoen alderdirik –Falangea izan ezik–, ez zegoen sindikatirik –Bertikala besterik, erregimenarena–, ez zen biltzeko edo manifestazio eskubiderik ere. Bigarren Mundu Gerra ostean, jendeak espero zuen aliatuek Franco eraitsiko zutela, baina ez zen horrelakorik izan. Are okerrago, 1953an AEBak Francoren erregimenarekin harremanetan sartu ziren, eta ondoko urtean berdin egin zuen Vatikanok. Eta 1955ean NBEk kide onartu zuten Espainia.

Iragan mendeko 60ko hamarkadan, zein zen egoera Gasteizen?

Enpresa asko etorri ziren garai hartan hona, bai Bizkaitik, bai Gipuzkoatik; Eibar, Elgoibar eta Oñatitik, adibidez. Era berean, Arabako herri txikietatik ere hainbat jende etorri zen Gasteize-

Imanol Olabarria Bengoa

Otxandio, 1937

Apaiz langileetakoa izan zen, Trapagarango Zugaztieta auzoan ari zen 60ko hamarkadaren hasieran, eta Gernikan ere bai geroago. Zamorako kartzelako apaizetakoa izango zen, lehenago ihesi joan izan ez balitz. 1975eko udazkenean heldu zen Gasteizera eta barru-barrutik bizi izan zuen Martxoaren 3 haren aurreko borroka.



ra lanera. Eta Espainiako Extremadura, Galizia eta Andaluziatik ere bai. Cablenorren, esaterako, Extremaduratik etorriak ziren gehienak. Garai hartan, astean sei egunetan egiten zen lan, zortzi ordu egunean, langileak ordu estrak ere sartzen zituen, eta hala ere, soldatak ez zuen ematen bizitzeko lain. Bateko gastu finkoak eta besteko kontsumo prezioen indizearen garestitzea, eroste ahalmen urria zuen langileak.

1975eko azaroan Gasteizko Cablenorren lanean hasi zinelarik, zer giro zen enpresan?

Laborari lanean ibilitakoak ziren nire lankideak, borroka kontzientziarik ez zutenak. Langileetako batzuek poliziak edo guardia zibilak zituzten senideen artean, eta normal hitz egiten zuten haietaz; hemengoek ez bezala, esan nahi dut, hemengoek bazuten-eta indar errepresiboen berri. Lankideek ez zuten patronalaren gaineko iritzi sendorik, ezta sindikatu edo prentsari buruz ere. Cablenorren giroa hori izan arren, Franco hil baino hamabost egun lehenago, zenbait lagun batzen hasi ginen Gasteizen. Biltzeko eskubiderik ez zenez, tabernaren batean juntatzen ginen, berbetan. Bilera haietan ez zen ika-mikarik falta, nork bere siglak erakutsi nahi izaten baitzituen.

Zein ziren zure siglak?

Nik ez nuen siglarik. Etxabarriko Bandaseko grebak [1966ko azaroan hasia, 163 egun iraun zuen] markatuta nengoen, non batzarrak agintzen baitzuen. Niri horixe iruditzen zitzaidan aberasgarriena. Batzarrean bertan erabakitzen zen dena. Esaterako, Cablenorren grebara irten ginen orduko, Forjas Alavesas, Mercedes eta Aranzabal ere greban zeuden. Azkenerako, hamabi enpresa izan ginen greban. Hainbat sektoretakoak ginen, baina aldi bertsuan irten ginen grebara. Horixe izan zen Gasteizko greben ezaugarria: orduko lege araudia hautsi genuen, sektore bakoitzari hilabete jakin bat baitzegokion lan-hitzarmena negoziatzea. Gasteizen, aldiz, batera irten ginen.

Lau egun egon zineten greban.

Goizean fabrikara joan eta hutsik zegoen pabilioi berrian sartzea adostu genuen. Ez genuen lanik egiten. Lau egun eta gero, enpresak fabrika itxi zuen. Gu-

Poliziaren negarra

“Puerta del Solen, Madrilen, polizietako batek galdetu zigun: ‘Zer dela-eta ekarri zaituzte Gasteiztik hona?’ Eta azaldu genion, ez baikenuen ezkutatzekorik. Eta poliziak: ‘Gasteizko Michelinen jardun ninduan lanean. Anaia diat hango lan-batzordean. Ke beltza sailean ari ninduan lanean, sail toxikoa, ezin nuen eraman, osasunagatik, eta polizia sartu nintzen. Baina hau ere ezin dut eraman, uztekoa naiz. Zigarro bat nahi?’ Komunera eraman ninduen, erre nezan. Eta polizia negarrez!’”

rea ez zen lehenengo kasua, ordea, beste fabrika batzuk ere egoera horretan ziren eta, bitartean, San Frantzisko eliza hartu zuten. Bide horixe hartu genuen gure enpresan ere, eta Judimendiko elizara sartu ginen, apaizen gogoaren kontra. Baina guk, geurea, errespetuz, baina geurea. Bilera irekiak egiten hasi ginen, Gasteizko jendeak ezer jakin nahi izanez gero iturri onetik jakin zezan. Poliziak bere sekretak bidaltzen zituela bagenekien, baina guk aurrera.

Greban zineten, fabrikak itxita, eta zuek Zaramagako eta Judimendiko elizetan itxialdian.

Eta Judimendiko elizan gurekin batera itxi ziren Apellaniz altzari fabrikako langileak ere. Greban zegoen enpresa bakoitzak batzarra egiten zuen egunero. Batzarrak asko laguntzen zigun denoi, beldurrez geunden-eta. Han informazioa trukatzeko genuen, arazoak aztertzen genituen. Batzar bakoitza eskola bihurtu zen, 20 eta 65 urte bitarteko langileen eskola. Egutero zerbait aztertzen zen eta ondoren bozkatu. Askok laguntzen ziguten batzar haiek. Garai berean, manifestazioak egiten ere hasita geunden Gasteizen, horretarako eskubi-



derik ez bazen ere. Polizia manifestariei oldartzen hasi zen, langileak atxilotzen. Eta poliziak langile bat atxilotzen zuelarik, edo patronalak langileren bat kaleratzen zuenean, greban ginen enpresa guztiok batera erantzuten genuen. Izan ere, ostegun arratsaldeetan, greban ziren langile guztion batzarra egiten hasi ginen Zaramagako elizan, eta batzar hartan, greban ziren enpresa guztieta-ko ordezkarien batzordeak parte hartzen zuten. Langileok fronte bateratu bat osatu genuen Gasteizen, aldarrikapen zerrenda bateratua. Patronalak diru errebindikazioak onartu zizkigunean, guk ezetz, kaleratutako langileak berriz hartu arte ezetz. Eta, ondoren, kaleratutakoak berriz hartu zituztenean, atxilotuak askatu arte ezetz. Enpresa bateko egoera konpontzen zenean, beste fabrika bateko korapiloa askatu behar zen. Askatasuna lehenetsi genuen edozein negoziazioren gainetik, langile guztiok batera. Gu batera ari ginen, patronala, aldiz, ez.

Horrela etorri zen 1976ko martxoaren 3ko greba.

Ostegunetan egiten zen batzar bateratuak hiru aldiz egin zuen greba oroko-



Imanol Olabarriari argazkiak Martxoaren 3ko oroitarriaren ondoan atera zizkion ARGIAk. Horretan ari zirela ikasle talde bat agertu zen eta orduko lekuko baten eskutik gertatutakoa ezagutzeko zortea izan zuten.

rreko deia. Lehenak ez zuen oihartzunik izan; bigarrenak, handiagoa izan zuen; hirugarrena, martxoaren 3koa zen. Egun hartan, polizia goizetik hasi zen tiroka. Urbina herriko Ormaetxea zauritu zuten. Andoni Txasko ere gogor jo zuten goiz hartan, bere begi bakarrean. Bazkalondoan, San Frantzisko elizako batzar bateratua baino lehen, Judimendiko elizan batu ginen fabriketako ordezkariok, batzar bateratua prestatzeko asmotan. Gurea amaitu eta San Frantzisko elizara joan ginenean, poliziak tenplua inguratuta zeukala ikusi genuen. Harrika hasi ginen, baina alferrik. Gero, jakinekoea da, eliza barruko langileei eraso zieten, eta irten eran, tiroka eta kulata kolpeka ekin zion poliziak.

“Tiro egin, jendea akabatzer a jo!”, aditzen da poliziaren hitzetan.

Dakigunez, Forjas Alavesas enpresako gerentea, Agirre, Madrilera joan zen beste zenbait enpresabururekin batera. Lauzpabost ei ziren. Espainiako Gobernuak lehendakari izan zen ministro Alfonso Osorioekin batu ziren, eta handik hiru egunera, martxoaren 3koa gertatu zen. Gure interpretazioen arabera, bile-ra horretan aditu zuena aditu eta gero,

Gobernuak tiro egiteko agindua eman zuen, langileak hiltzekoa, Gasteizen gertatutakoa ez zedin beste inon gertatu.

Handik hiru egunera Madrilén zinduzkaten.

Hilak 8 zituela, Jesus [Fernandez] Navese eta biok Bilboko irrati emisora batera joateko deia genuen, Gasteizen gertatutakoa kontatzera. Egun hartan bilera genuen Pilareko elizako sotoan, eta langile bat etorri zitzaigun, esanez poliziak bazuela bilera haren berri. Alde egin genuen. Hiru bat ordu geroago, kallean, atzetik heldu ninduten. Eskuak lotu zizkidaten eta auto batean sartu ninduten. Hantxe eduki ninduten ordu erdi bat, harik eta Jesus ere atxilo hartu zuten arte. Eta poliziak-etera, eta pare bat zartateko jaso nituen; torturarik ez, hala ere. Mehatxuak bai. Poliziak haserre zeuden. “Pantanora eramango hau gu, ur dena irentsiko duk!”. Atxilotuta, zutik, paretara begira, eta handik bi ordua, Madrilera.

Sedizioa zenuten akusazioa.

Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusian eduki gintuzten, Madrilén, Puerta del Solen. Hiru egun han eta Carabanchele-

ra. Han geundela jakin genuen sedizioa egozten zigutela. “Eta zer da, bada, delako sedizio hori?”, eta abokatuen erantzuna: “Estatuaren segurtasunaren kontra atentatu egitea”. Horrelaxe! Espainiako ministro Fraga Iribarneren eta haren Martin Villaren asmoa zen langileak zentzabidean jartzea. Uste zuten langileak kokilduko zituztela, baina ezta pentsatu ere. Biharamunean, protestak izan ziren han eta hemen, eta poliziak langile bat hil zuen Tarragonan [Juan Gabriel Rodrigo, hilaren 6an], gero beste bat Basaurin [Vicente Anton Ferrero, hilaren 8an], eta beste bat Erroman [Mario Marotta, hilaren 14n] Gasteizekin elkartasunezko mobilizazioetan denak. Orduan, bestelako gogoeta bat egin zuten agintariek: “Ez dugu horrela ibiltzerik, surtara egurra botatzen ari gara”. Eta diskurtsoa aldatu zuten. Gu kartzelan geunden, eta ez ginen zeharo jabetu. Gero, irten ginenean jabetu ginen aldaketaz.

Zein izan zen aldaketa hori?

Eztabaida-batzarrak galarazi zituzten, eta batzar informatiboak ezarri, alderdi politikoen eta sindikatuen kontsignak inposatzeko. Boto ematera deitu gintuzten, eta besteren esku uzten dugu harrezkero



protagonismoa. Boterearen kontra egotetik, "langileak boterera" oihu egitera igaro ginen. Grebak ezeztatu ziren, eta "borroka egunak" asmatu, egun batekoak eta asteburukoak. Indar errepre-
sioek uniformearen kolorea aldatu zuten, eta "ordenaren langileak" deitzen hasi ziren. Erresistentzia kutxatik, Estatua-
ren funts erreserbatuetara pasatu ginen, eta autonomia galdu genuen. Batera lan egiten genuenok, siglen menpeko egin ginen, sektario. Ordezkarien batzordeak ezeztagarriak ziren garai batean, gaur egun lau urteko pribilegioa duten ordez-
kariak ditugu. Sindikatu bertikal bat zen lehen, zazpi-zortzi sindikatu "bertikal" izan ziren gero, dira orain, nor bere in-
teresen alde. "Gizarte anestesia", esaten zuen Fernandez Duranek.

Azken hitza: Emakume batzarra

"Emakumeek eraman zuten borro-
karen zama astunena, ikusi ez zena. Eurek eutsi zioten familiaren ekono-
miari, eurek sufritu zuten gehien egu-
neroko garraztasuna, eurak joan ziren ikastolara eta banketxera ordainke-
tak atzeratzeko eskatzera, eurak izan ziren erresistentzia kutxaren zutabe nagusiak, eurak manifestatu ziren eskirolen kontra. Emakumeek ordu arteko moldeak apurtu zituzten eta mobilizatu ziren".

Zer diozu orduko borrokaren gainean?

Koktel gazi-gozoa daukat barruan. Aska-
tasun ametsa genuen, sindikatu bertikal hura kendu nahi genuen gaintetik, lane-
ko baldintzak kontrolatu nahi genituen. Langileen duintasunagatik borrokatu ginen, batzarrak ezarri genituen ezta-
baidagune eta erabakigune izan zitezen, ordez-
kari bozeramaileen batzordeak sortu genituen, noiznahi ezeztatze-
ko moduan. Langileon berdintasunaren alde saiatu ginen, diru igoera linealen alde. Hobekuntza ekonomikoak eta la-
neko baldintza hobekuntza eskatzen geni-
tuen, baina langile kaleratuak berriz hartzea, atxilotuak askatzea eta euren lanpostuan mantentzea lehenetsi ge-
nuen. Hiru hilabeteko borroka izan zen.

Iritzi kritikoa duzu gaur egun Martxoaren 3aren inguruan antolatzen diren ekital- dien inguruan.

Lore eskaintza eta omenaldia egiten da, eta errespetatzen ditut ekitaldiok. Bost hildakoak gogorarazten dira, baina ez haien amets eta antolatze-
ko moduak, eta borrokari frenoa jartzeko modua izan li-
teke hori. Ez da, seguru, sindikatu eta lan-
gileen asmoa, baina zenbait erakunderen gogoak uste dut horixe nahi duela, hilak izan zirela gogor-
arazi, "kontuz!", esanez bezala. Hura eta gero etorri zen Fernán-
dez Durán-ek [globalizazioaren aurkako mugimenduko ekintzailea] esaten duen gizartearen anestesia garaia. Laneko bor-
rora zuzentzeko bideak diseinatu zituz-
ten, kapitalari minik ez egiteko eran. Gaur egun, Martxoaren 3az pentsatu eta esan-
go nuke Francoren heriotzaz gero, eta oraind-
aino arte, ezagutu dugun krimenik handiena izan zela: bost hildako eta ehun zauritu baino gehiago, milaka testig-
uren aurrean, eta auzipaturik ez. ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
*Zure momentu
zailetarako*

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otañui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.**

Jarri publizitatea hemen

ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Zaplaztekoak

Zaplaztekoa eman digute beste behin ere Konstituzionaletik. Duela hiru urte pasatxo, Gasteizko FrackingEz kolektiboa sinadurak biltzen hasi zen, Herri Ekimen Legegile bidez Eusko Legebiltzarra presionatzeko helburuarekin. Ekimen horren fruitu izan da 2017ko ekainean Legebiltzarra onartutako legea: guztiz debekatu gabe, zorrotz mugatzen zuen frackinga. Espainiako Gobernuaren helegiteari erantzunez Konstituzionalak ebatzi du Frackingaren aurkako legea antikonstituzionala dela. Nago, zaplaztekoa hain kritikatu den “aldebakartasunaren” erabilpen bortitza dela. Gure eredu energetikoa erabakitzeari zaplaztekoa, auzitegia 100.000tik gora sinaduraren aurka.

Ama lurraren eta bizitzaren beraren mugak geroz eta ikusgarriagoak diren heinean, harik eta bistakoagoa da gure sistema sozioekonomikoaren sosten-gaezintasuna. Eredu sozioekonomikoa iraultzeko bestelako eredu energetiko bat ezinbestekoa dugu. Beraz, esparru energetikoan jokatzeko den bataila hau, kapitalismoa eta bizitzaren arteko gatazkaren dimentsioetako bat da.

Gatazka hau bizi-bizia da, baita plano ekonomikoan ere: aurrez aurre topo egiten dute kapitalaren aldeko politika ekonomikoek eta gizartearen babeserako politikek. Krisi finantzarioaz geroztik, dilema zorraren inguruan gauzatzen da gordinen: zorraren ordainketa guztiaren gainetik lehenetsi ala austeritatearekin amaitu?

2015 urtean Europa osoa Greziara begira jarri zen, Siryza Gobernura iritsi zenean: zorraren ordainketa bermatuko zuen Memoranduma versus herriaren aldeko defentsa. Herriak erreferendum bidez bozkatutako EZ hari inoizko Memorandum latzenarekin erantzun zion Siryzak. Kostas Lapavitsas ekonomialariak uste du Gobernuak inongo



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA

@aialuski

Gatazka hau bizi-bizia da baita plano ekonomikoan ere: aurrez aurre topo egiten dute kapitalaren aldeko politika ekonomikoek eta gizartearen babeserako politikek. Krisi finantzarioaz geroztik, dilema zorraren inguruan gauzatzen da gordinen: zorraren ordainketa guztiaren gainetik lehenetsi ala austeritatearekin amaitu?

momentutan ez zuela nahi izan europar aginteei aurre egin. Hori horrela izan edo ez, kontua da Troikaren mezua herriari ulertarazi ziola greziar gobernuak. Horra, zaplaztekoa Greziako *demos*-ari.

Siryzaren buruzagitzak hartutako bide hori gogor kritikatzeko du Lapavitsasek eta Grezia moneta batasunetik irtetea defendatzen du. Irteera horrek izaera progresista izatea ezinbestekotzat jotzen du. Batetik, austeritatearekin amaitzeko beharra aldarrikatzen du, horretarako zorraren ordainketari uko egin eta gastu sozialaren hazkundera sustatuz. Bigarren multzo batean, diru publikoaren bitartez, industria eta nekazaritza sektoreak bultzatzeko politikak defendatzen ditu, zerbitzuetan espezializatuegi dagoen ekonomia berregituratze aldera. Finean, langile klasearen aldekoak izango diren politikak lehenestea eskatzen du.

Estatistikek erakusten dutena ongizatearen aurkako eraso izugarria da. 2008-2013 bitartean, greziarrak batez beste %40 pobretu ziren eta 800.000 pertsona dira honezkero baliabide faltagatik osasun zerbitzuetara sarbiderik ez dutenak.

Siryzako Gobernuak joan den maiatzean sinatutako akordioak areago sakondu du kapitalaren aldeko balantza: %3,5eko superabit primarioa iragarri dute hemendik eta 2022 urtera arte. Superabit primarioa, zorra ordaindu aurretiko aurrekontuen saldo positiboa da. Honela, austeritatea areagotzea bilakatzen da zorraren ordainketa bermatzeko bide bakarra. Datuek hotzikara ematen dute: 2008-2011 tartean depresio larriak jota zegoen pertsonen kopurua ia hirukoiztu egin zen. Noraino jarrai daiteke herri bat itotzen?

Kapitala eta bizitzaren arteko gatazka ukigarria eta mingarria da gure bizitzako hainbat eta hainbat esferatan, eta esfera guzti hauetan batailak irabazteko giltza erabakitzearen eskubidea da. Zaplaztekoak, eskubide hau zanpatzera datozen erantzun unilateralak dira: goitik inposatuak eta populuaren adierazpenaren aurka. ■

Bigantxen demokraziaren festa handia

Trantsizio garaiko komunikabideen esamolderik arrakastatsuenak: “Gaur, hauteskunde egunean, demokraziaren festa handia”. Frankismo ondoren hauteskontziak betetzeko ariketa berria zenez, festa handien pareko zerbait bihurtu zen bozka emateko aukera.

Handik omen dator hauteskontzien beatifikazioa, demokraziaren ikono-rik gorena bihurtzeraino. Denboraren poderioz, ikonoa lausotu da: sarritan egiten den edozerk bere distira galtzen du, ezinbestean.

Hala ere, erreferenduma aipatzen den bakoitzean, ahazturiko zirrara sentitzen dugu, demokraziaren festa gurean berpiztuko balitz bezala. Azkenaldian, gainera, “dena erabaki nahi dugu” esamoldea garaitu da, edozein ekimen publiko bozketa baten bidez guztiz zilegi bihurtuko delakoan, magiak ukiturik balego bezala.

Arrazoia daukagun ala ez jakiteko... galdeketa bat antola dezagun! Horren emaitza gure hauteskunde-programarekin bat ez badator, ba, tira, aske gara kanpainan agindutakoa ez betetzeko, “herriak hitz egin duelako” (geuk hitza eman diogulako, gainera). Bestalde, galdeketa gure alde ateratzen bada, erabakia lasai egin dezakegu, herriaren hitza



Iván Giménez

KAZETARIA

@IvnGimnez

Agian, gure buruari galdetu behar diogu ea horrelako ekimenek ez ote dituzten demokrazia eta erreferendumak debaluatzen, “dena erabakitze eskubidea” bigantxen mailara jaitsaraziz

errespetatuz. Herri-galdeketa formula magikoa da, beraz.

Orain gutxi, Burlatako udalak festetan bigantxak jarri ala ez erabakitze, galdeketa deitu zuen: eroldaren %5,7ren babesarekin, bigantxak egonen dira. Bigantxen aurkakoak %5,4 izan ziren:

demokrazia gailendu zuen, burlata-
rren %89k parte hartu ez bazuen ere.
“Herriak bigantxak nahi ditu”, eta kito.
Antzeko galdeketa egin dira Iruñe-
rrian, bigantxen aldeko (Burlata, Noain)
ala aurkako (Uhartea, Barañain) herriak
sailkatuz. Denetan, %15eko parte-har-
tzea gainditu gabe. Demokraziaren fes-
ta izatekotan, oso txikia, txikiegia agian.
Eta beti bigantxen inguruan, hau da, 3.
edo 4. mailako gaiekin lotuta.

Agian, gure buruari galdetu behar
diogu ea horrelako ekimenek ez ote di-
tuzten demokrazia eta erreferendumak
debaluatzen, “dena erabakitze eskubide-
a” bigantxen mailara jaitsaraziz.

Eta are larriago: udalek eguneroko
erabaki bat hartzerakoan galdeketa an-
tolatzen badute, ez ote ditugu banakako
interesak eta gogoak lehenesten? Hu-
rrerango urratsa izan daiteke umeentza-
ko jolas-parkeak kentzea: seme-alaba-
rik ez badut, zertarako parkea? Logika
bera jarraituz, datozen galdeketa izan
daitezke hiri-kontribuzioa ordaintzea
derrigorrezkoa den ala ez; edo garraio
publikoa kendu ala ez, berekoikeria in-
dartzat eta ikuspegi publikoa ahultzen.

Begi-bistatik galdu behar ez duguna:
eledunek erabakiak hartu behar dituz-
te, herria entzun ondoren, baina ardura
delegatu gabe. ■

Kakagaleaz nator



Jose Ignazio Ansorena
MUSIKARIA

Honako hauek *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribiton*-en disko batean grabatuak: “Kakagaleaz nator Erreteriatik, lau kuarto eman nituen egi-teagatik. Horra bada, osaba, alegratu bedi, kaka galanki egin det, eder eta lodi”.

Bada, epelak entzun genituen. Beti izan naiz, baina, kontu marroi hauen zalea, agian umetan gure birramona Jenerosak, eguneroko txizontzi saioa amaituta, emaitza erakutsarazten zidalako eta, ongi miatu ondoren, iritzi zorrotzak plazaratzen zituelako: “Ederrak gaurko kaka hauek! Arin samar dabil mutila... Ea zizarerik dagoen...”. Hau ere hare-na da: “Aita Santuak ere puzkerrak merke-merke”.

Gaztetan txalupan itsasora ateratzen ginenean, kuadrilako batek, *Hippiiek*, puzkerra botaz gero, denok uretara salto. Iraunkorrek atontzen zituen: puska batera txalupara itzuli nahi eta oraindik ere sekulako kiratsa. Jantzita harrapatuz gero, arropen itsatsita geratzen zen haren sustantzia ustez gaseosoa.

Mendira alabaren *Gustabo* zakurrak laguntzen nau. Behi gorotz *ensaimadak* maite ditu. Gainean etzan eta bueltaka, igurtzi egiten da. Etxerako itzulia, autoaren leihoak zabalik, hotzik handiena badago ere. Noizbait ertzainek gelditzen banaute, keru kontrol proba berriaren beharra ikusiko dute.

Kakapilari mesede handiak zor dizkiogu. Antzinako mitoak dioenez, *Sanson* indartsuak noizbait arantarrak akabatu nahi izan zituen,

fiesta handitan zebiltzala ikusi eta jelsiak jota. Harri handia hartu baina jaurtitzera zihoanean, gorotz handi batean irrist egin eta bakarrik Aballarriraino bota ahal izan zuen eta inor akabatu ez. Horrela deitzen zaio oraindik: *Sanson harria*. Inguruan maiz ibili da *Gustabo* nirekin, apika oraindik gorotz beraren gainean. Honek ikerketa antropologiko sakona behar du. Eta Jaurlaritzaren diru laguntza.

* * *

Egungo higiearen ohiturak klasista, burges eta antiekologikoak dira. Askok egunero hartzen dute dutxa, batzuetan hainbat aldiz eta barruko arropak ere egunero aldatzen. Gure zaharrek as-tean behin *muda* eta dutxa... urtean behin, behar izanez gero noski. Horiek bai jakintsu, ekologiko eta berdintzaileak.

Ziur aski Trump tronpatzaile tronpatua orduo dutxatuko da, urrezko konketan eserita harrizko kakamokordoa atera ezinik ibili ondoren. Amona Jenerosak ere bazuen honelakoentzako izena: *Ezinlibrategi*. Odoluzki muturra ere gustatzen zitzaien.

Munduak irauteko aukerarik izatea nahi badugu, *Gustabo* bezain piztiak garela ezin ahaztu, tronpatzaileen eskolako lotsagabe ugariei zaunka eta ausiki egin ahal izateko.

Honela amaitzen dira bertsoak: “Jendeak egin arren irri-arra farra, fuera mokordoa eta biba kaka zaharra”. Horixe. ■

Kosmopoliten mikronazionalismoak



Edu Zelaieta Anta
IDAZLEA

Madrilen bizi diren jendakien bisita izan zuen lehengoan Sofiak, aspaldiko partez. Lehen platera bukatu aurretik jadanik ari ziren Kataluniako egoeraren ziurgabetasunaz. Bigarren platerarekin batean, Kataluniatik Euskal Herrira egin zuten bazkal-tiarrek. Klasiko bat. Postreek ekarri zioten berari eskusiban bere ikuspegia azaldu beharra. Kafeari lehen zurrupada kentzerako, barrena deseroso sentitzen hasia zen. Katilua pausatu eta ondoan egin zuen galdera, bisitarien diskurtso *neutroa* uxatu nahian: zergatik diozue neu naizela nazionalista?

Inork ez zuen erantzunik eman. Kafearen mingotsa atxiki zitzaion familia giroari. Isiltasuna etorri zen geroago. Harik eta izeba batek, ez trebetasun gutxiarekin, ikusitako azken filma aipatu zuen arte. Zinematik literaturara egin zuten ondotik. Hala ailegatu ziren *On Kixote*-ren handitasunaz mintzatzerako, batez ere Cervantesen lana irakurria ez zutenen aldetik. Klasiko bat.

Izan ere, halakoxeak dira kosmopoliten mikronazionalismoak: mikromatxismoen pare, oharkabea joaten dira, eguneroko harremanetan ezin erosoago etzaten diren arren. Beste batzuen gainean etzan ere. ■

Ezin izendatuzkoa

Egun hauetan, Garazi-Baigorri eskualdean ongietorria egingen diogu Adélaïde Mukantabana ruandarri, hain zuzen ere Ruandako tutsien genozidiotik doi-doietatik eskapatu zen lekuko hunkigarriari. *L'Innommable-Agahomamunwa* (*Ezin izendatuzkoa*) autobiografian (L'Harmattan, Paris, 2016), bere ibilbidearen gorabeherak azaltzen ditu, baita bere bizipenetik at egin dituen ikerketa historikoak ere.

Adélaïde Mukantabanak esplikatzeko du liburu horretan nola Belgikak 1916an kolonizatu zuen Ruanda, Afrikako herri ttiki-ttiki hori, alde batetik frantses hizkuntza eta katolizismoa inposatuz, eta bestaldetik gorrotoa sorraraziz ruandarren artean. Alabaina, indarrez sinetsarazi zioten biztanleei laborariak (%85) eta behi hazleak (%10) bi arraza ezberdinetatik heldu zirela; kolonizatzaile belgikarrek nortasun agiriak asmatu zituzten, laborariei "hutu" izena ezarri, eta behi hazleei "tutsi". Hastapenean, zernahi abantaila eskaini zizkieten tutsiei, hutuen herra elikatuz, eta 1950 hamarkadatik aitzina, hutuen "iraultza soziala" sustengatu zuten, 1994an tutsien deuseztatze "lana" planifikatu eta gauzatzearaino.

Adélaïde Mukantabanak ederki erakusten du nola Belgikaren kolonizazioak desagerrarazi zituen lehengo ohiturak, zenbateraino ustelduak ziren belgikar agintariak eta diktadore ruandarra. Agintariek insistitu zuten tokiko eliza-gizonen parte-hartze sutsu erailen alde –apez batek Hitlerren *Mein Kampf* kinyaruandara itzuli omen zuen, genozidioa hobeki prestatzeko xedez–.

Idazleak salatzen du 1950-1994 garai arteko Frantziaren rol ahalkegarria genozidioaren garapenean. Berriki gutun irekia igorri dio Emmanuel Macron frantses lehendakariari, horrek armada buru izendatu berri duelako genozidioan parte hartu zuen ofizial bat, eta



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

Frantziak Ruandari oraindik barkamenik ez diolako galdegin –Belgikak, Ameriketako Estatu Batuek, Nazio Batuen Erakundeak eta Vatikanok egin dutelarik–.


Liburu hori irakurritz, harritu naiz bi izen euskaldun ikusteaz kontakizunean. Genozidioaren abiapuntua izan zen Habyarimana diktadorearen hegazkin leherketa, eta hegazkin hori François Mitterrand frantses lehendakariak zion adiskidetasunez eskaini, bi gidarirekin, horietan Jean-Pierre Minaberri koronela. Auskalo, izen euskalduna izanagatik, horrek ez zuen beharbada beste deus euskaldunik. Baina beste pertsonak bai baduela, hau da Roger Etxegarai kardinala, ezpeletarra, genozidioaren garaian kargu handia betetzen zuena Vatikanon. Genozidioa doi-doia bukatua zela eta, Ruandako lurra oraino gorpuez estalia zela, Etxegarai kardinala joan zen Ruandara, han benedikatu "ezin izendatuzkoan" lagundu zuten soldadu frantsesak, eta galdatu salbu atera ziren tutsiei eta eskuak oraino odoleztatuak zituzten hutuei elkar barka zezaten –Bigarren Mundu Gerra ostean juduek eta naziak egin izan ahal balute bezala!–.

Euskaldun eta ezpeletar gisa, xehetasun horiek irakurtzean lotsatu naiz: nolaz bere burua zapaldutzat daukan herri bateko semeak uka zezakeen atzerrian gertatu zuzengabekeria? Orokorkiago, zenbat euskaldunek parte hartu zuen kolonizazioan edo kolonizazioak eragin sarraskietan, historian zehar, esploratzaile, merkataria, soldadu edo apez gisa? Bake prozesua aitzina doan garai honetan, esperantza dut laster kolektiboki jakinen dugula galtzaile edo irabazle, biktima edo borrero, hobendun edo hobengabe postuetatik harago joaten, eta gure historiaren alor minbera guziak aztertzeke gai izanen garela, hurbilekoak zein urrunekoak. ■

Jakoba Errekondoren liburu berria
Antton Olariagaren ilustrazioekin

LANDAREAK LANTZEN

2018ko ZURE LANETARAKO AGENDA



Hemen duzu urte osoan
egin beharreko lanen
egutegia, **saso**i bakoitzari,
hilabete bakoitzari eta
ilargialdiari lotuta:
baratzean, fruitu arboletan,
lorategietan eta basoan.

Lan hauek noiz eta nola egin
ditugun jasotzeko aukera
ematen du agenda honek.

**LIBURUA
ESKURATZEKO***

943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda



*Jakoba Errekondok sinatzeko aukera

Zuberoan bizi eta lan egin, herria bizi dadin

Zuberoako ekonomiaren gaineko argazkia duzu jarraian. Laborantza apaltzarekin batera, enplegua eta biztanleria galduz joan da urtez urte. Baina baikortasunerako arrazoiak eman dizkigute Ekonomia Ekimen Elkartuen Garapen Erakundeko (ODACE) Beñat Elkegaray presidenteak, Lakarriko Dorothée Nabarra laborariak eta Barkoxeko Herriko Etxearen langile Patrick *Kanpo* Queheille-k.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Zuberoak 815.5 km² luze-zabalera dauka. Ordea, biztanleriaren kopurua mendentuz joan da azken mendeetan. 1900. urtean 25.000 jende inguru bizi zen. 2012ko erroldan 17.018. 2018an, berriz, 12.968 inguru. Azken kopurua ODACEko Beñat Elkegaray presidenteak zehaztu digu.

Zuberoko ekonomiaren oinarri nagusia laborantza izan zen antzina. Alta, XX. mendean, espartinen fabrikazioak berezko jitea eman zion lurraldeari. 1.200 langile izan ziren: "Alabaina, gaur egun espartingintzako bost enpresa dira, 80-100 langile orotara. Ontsa ari dira, baikoitzak espartin berezi bat lantzen baitu", diosku Elkegarayk.

1987-88 urteetan krisia iritsi zen sektorera. Azken 30 urteetan industria mota berria sortuz joan da. Aeronautikarako enpresak dira nagusiki, eta metalurgian; kautxua eta plastikoa lantzen dituzten enpresak ere badaude. Kabalak transformatzen dituzten lantegiak ugari dira: behikia, txerriak eta hegazti hazkuntzakoak. Axuria kooperatiba da nagusia. Ekoizle partikularrak are eta gehiago dira urtez urte.

Laborantzak baina, beheranzko joera hartu zuen mendialdea husten hasi zenetik: "Eta zaila dugu hori geldiaraztea. Mendiko desertifikazioa eman da azken 30 urteetan. Demografia arazoa da Zuberoan. Bada lotsa edo beldur gisako bat. Beste belaunaldi batek segituko al du laborantzan?". Horixe galdera.

Jende kopuru nagusia Maule-Lextarre hiriburuan bizi da. 3.300 inguru; 1911n 4.700 ziren. Hiriburuaz gain, Sohüta (1.100 biztanle), Barkoxe (750), Bildoze-Onizepea (700) eta Atharratze (590) herriak dira bizileku nagusiak. Kopuru horiek 2000. urtekoak dira, egungoak aise apalagoak dira hain ziur ere.

ODACE erakundea: 160 bazkide

ODACE da tokiko ekonomiaz arduratzen den erakundea. 160 bazkide ditu, enpresariak dira. Proiektu berrien inguruan ari da, enpresen mintegien bidez: "Mintegian formakuntza berezia eskaintzen dugu enpresa andana batendako. Gure ekimena soziala da, enpresari tipiak gara, ez dago lobby-rik. Eta horretarako nahikaria behar da. Demagun, 5-10





enpresa sortzaile berri direla, bada elkarrekin aritzen gara. Lurralde osoaren sustapena dugu xede". Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera (CCI/MIG) ere elkarte honen partaidea da.

ODACEk 20. urteurrena ospatu zuen iaz. Enpresaburu anitz bildu zen, horietako asko kanpotik etorrita. Etorkizuneko hainbat gairi buruz jardun zuten, automatizazioa horien artean: "Galderak jalgitzen dira, noski. Automatizazioan aritzea lan galtzea da? Xantza al da? Lan sortzea al da? Eztabaida sortu zen. Komunikazioaz ere mintzatzeko estakurua izan genuen..."

Zuberoako ekonomia Baionako MIGi lotua izan da, baina Biarnoko Oloroe-Donamaria herria eta Paue hiriburuarekin batera ere garatu izan da. Zuberotarren etorkizuna bermatzeko egungo lurraldearen ezaugarri berriak aintzat hartu behar dira, industria eta administrazioa ongi uztartu beharra dago: "Konparazionerako, administrazioan ari diren hainbat langile zuberotarrek dira, gehienak Paue, Oloroe edota Baionan ari dira. Zuberotarren kopuru handi bat beti aritu izan da kanpoan lanean. Juxtu lo egiteko edo asteburuan itzultzen dira. Horrek ere desertifikazio gisako bat eragin du. Beraz, ekonomia sustatzeko administrazioan ari diren langileen inguruan proposamen berriak egin nahi dizkiogu administrazioari berari".

Zuberotarrek "kanpoko zentralizazioa" pairatu dute betidanik. Elkegarayk dioenez, dinamika berriak sustatuz gero, langile zenbait Zuberoan bertan ari litezke, industriagune inguruetan nahiz landa eremuetan. Esaterako, telelangileen eremua zabaltzen ari da, gero eta jende gehiago ari da etxetik lanean. Edonola ere, hona solaskidearen zehazpena: "Aldian-aldean juntatzea beharrezko da, halere. ODACen lema hori atxiki nahi dugu. Adibidez, Maule, Sohüta, Atharratze eta Barkoxen lau langunetan elkarrekin aritzea xede dugu. Langune hauetan taldeak ari dira, bulego

bat zabaldu dugu bi urtetarako, tokiak eta tresnak partekatzen ditugu denon artean".

Sohütako Lizeoaren garrantzia

Landa eremuan dago Sohüta, eta bertan Zuberoako Lizeoa: "Sohütako Lizeoa estrategikoa da. Lizeoa lau langunetarako ikur gisako bat bilakatu behar da. Maineruski, orain gutxi arte guk ez dugu aski ezagutu lizeoa, eta lizeoak ez ditu aski ezagutzen Zuberoako enpresak".

Lizeoa garrantzitsua da ekonomian eragiteko. Baxoa (Batxilergoa) egin ondoren, Goi Teknikari Titulua (BTS) erdiesten da bi urtetan: "Ni ikasle izan nintzen eta Lizeoak gauza interesgarri asko ekar dezakeela badakit. Alta, egun 17 ikasle baino ez dira arlo horretan, eta gure denboran 30 ikasle ginen. BTS tituluaren kopurua apaltzen ari da".

Sohütako Lizeoa publikoa da, Hazparneko Lizeoa pribatua, Miarritzeko ESTIA eskola (*Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées*) pribatua. Donapaleuko Indar eta Hazparneko Aldaturen -enpresen sostengurako zentroak- artean sare bat munta liteke: "Gure xedea Zuberoa, Baxenabarre eta Lapurdiko ikastetxeen eta enpresen artean sarea uztartzea da, berrikuntza handia litzateke".

Harremanak indartu nahi dituzte Euskal Herriko Ipar eta Hegoaldean, bertako enpresa handiak sarean sartuz: "Elkarte bat muntatzea ontsa liteke, irakasle eta ikasleekin batera, elkarte misto bat, ez profesionala".

Komunikazioa inportantea da, baina lehenik ekintzak behar direla diosku Elkegarayk. Zuberoako nekazaritza ez da, esaterako, Baxenabarrekoaren heinekoa. Nekazaritzako elikagaien industria indartsuago da Nafarroa Beherean. Horregatik, tokiko industria eta laborantza elkarri begira garatu beharra ikusten dute. Aeronautikari edo metalurgiarik kasu eginez, baina laborarientzako tresneria ere ekoitziz, kanpotik ekarri gabe. Hots, hemengo hemengoentzako eginez. Alabaina, globalizazioa tarteko, konkurrentzia handia dago, kanpotik heldu den multinazionalak hartu dezakete eremua: "Baina kezka hori denean dago. Horri buru egiteko tokiko industriak, laborantzak eta zerbitzu sektoreak elkarrekin ari behar dute. Kanpoko produktuak hurbil dira, eta gu ere urrunera joan gaitezke. Gakoa da produktu

Hiriburua da Zuberoako langune handiena. Alta, Sohütako Lizeoa gune estrategikoa da lurraldearen garapen ekonomikoan. Argazkietan, enpresa bateko langile gazteak, lizeoko ikasleak eta Maule.

onak egitea. Adibidez, hemengo enpresa batek asmatu duen ahate kaiola anitz saldu da kanpoan, gehienak, gutxiago Euskal Herrian”.

Deszentralizazioa edo zentralizazioa

Euskal Herria Frantziaren zentralizazioaren menpe izan da historikoki. Zuberoa berriz, Ipar Euskal Herriaren menpe antzeman du zenbaitek. Zer da deszentralizazioa, ordea? Zer da delegazioa edo ordezkaritza? ODACEko bilkuretan galderak eta dinamika berriak sortzen ari omen dira. Ekonomia politikarekin batera garatzen da. Zuberoak bere Herri Elkargoa ukan du eta Euskal Hirigune Elkargora pasa da orain: “Horren kontzientzia ukan behar dugu enpresan nahiz administrazioan ari garen guztiok. Guk Euskal Elkargoa behar dugu, baina Elkargoak ere gure beharra dauka”.

Euskal Elkargoa estatuarekiko deszentralizatzeko bitartekoa da. Datozen urtetan ebatziko da instituzio berriaren nortasuna eta heina: “Baiki, eztabaida areagotu behar dugu ondoko hilabeteetan, baina, kasu. Hemen ere Frantzia tipi bat behar dugu eraiki? Ipar Euskal Herri zentralizatua? Hala beste modelo bat? Euskal Elkargoa xantza da, berezko eskumenak izanen ditu, baina kasu antolatzean, ez dadin beste zentralizazio gisako bat izan. Ez bakarrik industria arloan, beste arloetan ere bai. Historikoki beti izan dira probintziak, gu Zuberoa gara. Beraz, azter dezagun ontsa elkarren arteko harremana eta errespetatua izan dadin gure nortasuna. Konfiantza behar dugu Euskal Elkargoan, baina betiere guk kontrola atxikiz”.

Mendialdeko desertifikazioa

Dorothee Nabarra Lakarri herriko laborariak gurasoen etxaldearen segida hartu zuen 1990. urtean, Apezetxea baserria. ELB sindikatuko (Euskal Laborarien Batasuna) kidea da, lurralde honek ordezkaria. Etxaldeak 38 hektarea lur dauka, horietako 14 traktorez lantzeko modukoa. Bere gurasoek ardiak eta behiak hazi zituzten: “Ene senar ohiarekin abiatu nintzen laborantzan, bera ez zen laboraria. Bera ardiekin aritu zen, eta ni behiekin. Bereizi ondoren, behiak baino ez ditut hazi. Orain 25 urtetik behiak ditut baserrian, eta azken 17 urte honetan, mozkina –behikia– zuzenka ari naiz saltzen”.

EKONOMIAREN ARGAZKIA

2018. urtean: 12.968 biztanle.

4.789 enplegu

Laborantzan: 863 (%18)

Industrian: 1.055 (%22)

Eraikuntzan: 480 (%10)

Merkataritza, garraioa, eta hainbat zerbitzu: 1.200 (%25)

Administrazioa, irakaskuntza, osasuna eta gizarte ekimena: 1.200 (%25)

Enpresa kopurua:

841 (laborantzaz kanpokoak)

Industrian: 138 (%16,4)

Eraikuntzan: 131 (%15,6)

Merkataritza eta garraioan:

270 (%32)

Zerbitzu enpresak: 150 (%18)

Partikularrei zerbitzuak: 152 (%18)

2015 urtetik 53 enpresa berri

Industrian: 13

Eraikuntzan: 9

Merkataritza eta garraioan: 10

Enpresen zerbitzurako: 15

Enpresa partikulak: 16

Lakarrin 120 bizilagun dira. Herria hustuz joan da azken 50 urteetan. Laborari honek 25 etxalde ezagutu zituen haurtzaroan, egun sei laborari baino ez dira ari: “Oro har, inguruko herrietan hori gertatu da, baina Lakarrin aboro. Bertze herriak baino hamar urte lehenago hasi zen husten. Laborari gazteak joan dira kanpora. Ez dago segidarik”.

Zuberoako Nekazaritzako Lizeoan eskolatu zen. Ondoren, Amikuzeko Etxarrin BTS erdietsi zuen. Hasiera ez da erraza: “Estatuak sosa ematen dizu, baina horretarako hamar urte engaiatu behar duzu. Ni hastapenean lotsatu naiz, beldurtu”. Biharko Lurren Elkarte (BLE) sartu zen, baita nekazaritza biologikoaren (BIO) bidean abiatu ere.

40 behi ditu orotara. Hamabi bat txahal eta bost bat behi saltzen ditu urtero. Etxaldea bere gain hartu zuenean, haragia transformatu eta kontsumitzaileari zuzenka saldu behar ziola ohartu zen, “bestenaz ezin nuen aitzina egin”.

Hiru tona inguru ekoizten du urtean. Mauleko hiltegiarekin ari da lanean, *Abattoirs du Pays de Soule* deritzanean. Lakarriko Marie-Claire Leurgorry Ira-goinegaraia etxaldekoarekin batera: “Auzo gara. Biok hasi ginen hiltegian, arazo sanitarioak ez ukaiteko. Zuzendarriaren sostengua ukan genuen, talde bat osatzen lagundu zigun. Kabalak hil eta mozkinak hutsean ontziratzen dituzte. Haiek atontzen eta nahi bezain luzaz atxikitzen dituzte hozkailuan. BIO egi-tea bermatzen digute”.

Hiltegitik bertatik merkaturatzen dute mozkina, bezeroari zuzen eramanez: “Jendeei erraten diet, badut behikia edo txahal bat prest hamabost egun inguruan, nahi duzue?”. Paue, Orthez, Baiona eta euskal kostaldean ditu bezeroak, baita Parisen ere: “Erosleak denetarik hartu behar ditu, 5 edo 10 kiloko haragi sorta: xerra, haragi xehatua edo zatikiak. Haiek eskatu eta nik eguna ematen diet paketeak eramateko, ontsa saltzen dut”. Banaketa sei laborariren artean egiten dute, kamioi bat partekatzen dute.

Mozkinaren kalitateak berme eman die laborari hauei aitzina egiteko. Nabarrak Euskal Herriko Etxe Ekoizleen Elkartearen (IDOKI) hautua egin zuen. 250 jende biltzen ditu elkarteak: “IDOKIn sartu naiz, elkarte horrek laborantzan aritzeko manerarekin ados bainaiz. Kolektiboki aritu behar dugu, etxalde batean momentu gogorrak bizi ditugu, eta kolektiboan ariz gauzak beste gisa batez ikusten ditugu. Halaber, laborantzan ari nahi badugu, ez dugu ingurumena zikindu behar. Zuberoan eta Euskal Herrian oro har, kontsumitzaileak argi ukan behar du hori”.

Bizimoldea eta konbikzioak balio zaizkio Nabarrari, horiek behar ditu uros bizitzeko. Bere seme-alabek Euskal Herrian bizitzea dute xede eta arrangura. Hemen sortu direnez gero, parada ukan nahi dute bertan bizitzeko: “Zuberoan ez baita lanerako segidarik izan, eta Bortu aldean guttiago”.

“Gure aita-amek erraten ziguten hemen plantatzeko, baina lurrari atxiki-mendua galduz joan da”. Haiez gero, ekonomiaren globalizazioak zaildu du baserrian segida izatea. Horrek hala ere, kontzientzia biziagotu die berari eta sendiari: “Politikoki ELBn hartu nuen euskaldun izatearen kontzientzia. Ene sentimenduetan Euskal Herrian bizitzea ukan dut betidanik, alta, ELBko kide eta



oraingo bikote abertzaleak areago argitu zidan hori. Euskaraz mintzatzea eta lurrari lotua bizitzea abertzale izateko manera bat da”.

Herria bizi dadin, bertan bizi behar

1800. urtean 2.290 jende bizi zen Barkoxen. 1591n 1900; 2013an, berriz, 673 bizilagun. Populazioa heren bat menderatu da bi mendetan. Bertan sortu zen Pierre Topet *Etxahun* ezaguna, euskal idazlea, musikaria eta pastoralgilea. Ogibidez laboraria eta artzaina.

Patrick *Kanpo* Queheille barkoxtarra da, 1964n sortua. *Kanpo* etxeak eman dio goitizena. *Herriko Semeak* pastoralaren egilea da, 1998an jotakua Barkoxen. *Xahakoa* pastoral ere berak idatzia da, 2010ean antzeztua. Dantzari izana da eta dantza irakaslea egun.

Maulen aritu zen lanean gartzetan, industria alorrean. Barkoxeko Herriko Etxeko langilea da azken 23 urteetan, bi-deetako horniketen arduraduna: “Ontsa da herritik joatea, kanpoan zer den ikustea, eta ohartzea zer xantza dugun herri txikietan bizita”, erran digu *Kanpo*-k.

“Barkoxen 650 bizizale gara. Gure arrangura handiena jendearen galtzea da. Azken bost urteotan 84 bizizale galdu dugu. Seinale makurra da hori, Zuberoan populazioa apaltzen ari da, Barkoxen bereziki. Ekonomia bizizaleek sustatzen dute, jendeek atxikitzen

1986an 1.200 langile ari ziren espartingintzan, egun 80-100 dira. Alabaina, industriagintzan 1.055 enplegu berri sortu dira Zuberoan.

dute tokiko ekonomia hemen bizi badi-ra, bestenez, nola?”.

Barkoxen 50 etxalde ari dira laborantzian: “Ardi esnea ekoizten dute nagusiki, gero eta laborari gehiagok esnea gasnatzen dute eta zuzenka saltzen”. Baina, herria bizi dadin, jendeak herrian bizi behar du: “Posible da. Bistan da. Hartakoz, bizizaleen arteko harremana behar da sustatu”.

Alta bada, Barkoxe bizirik dago. Populazioaren erdia industrian, zerbitzuetan eta administrazioan ari da. Herri batek behar dituen komertzioak, saltegiak, posta-etxea, medikua eta farmazia ditu, baita zahar etxea ere: “Denetarik dago eta denetarik behar da”.

Barkoxtarrek ODACerekin elkarlanean aritu dira iragan urtean: “Baiki. Ekonomiari arralotzeko, gure gazteak herrian atxikitzeko moldea kausitzeko edo joan direnak arrajinarazteko. Zuberoako bertze herrietako languneak partekatze xedetan ari gara. Jende eli bat ari da eta langune berria sortu liteke internetez, telelanaren bidez”.

Zuberoako biztanle kopuru handiena Maulen kontzentratzen da, industria eta zerbitzugune inportanteak hiriburuan daude. Zuberotarrak beste herriguneak

indartzen saiatzen ari dira Atharratze, Sohüta eta Barkoxen. Berriki, kari horretara inkesta bat egin dute familia guztien artean. Eztabaida sortu da, jende anitzek parte hartu dute sei hilabetez egindako bilkuretan: “Inkestaren funtsa da ea asmatzen ahal den, gazteak hemen egon daitezten. Gazteek nahi dute hemen egon, baina lana herrian ez dago, ez herri ondoan ere. Alabaina, ekimenak gogoarazteko enbeia piztu du gazte eta adinekoen artean, arrapostu baikorrak biltzen ari gara”. Urte berria hastearekin batera bilana egiten ari dira eta herritar guztiei aurkeztuko diete aurki.

Haur eta nerabeek hamaika urtera arte herrian egiten dituzte ikasketak, eskola publikoan. Gero Maulera doaz, bigarren hezkuntza egitera. Lizeoa berri, Maulen edo urrutiago dute. Eskola publikoan, Ikas-bi sistema elebiduna lantzen da, euskara atxikitzeko doi-doi.

Euskara galtzeak Pastoralaren eta Maskaraden segidan trabak ekarri ditu, euskaraz egitea geroz eta zailagoa baita. Euskararen egoera horrela ikusten du solaskideak: “Egun euskara erdiz erdi dago. Euskararen transmisioa apaldu da. Eskola publikoa ari da husten. Ondoko herri txikietan -Arrokiaga eta Eskiula- eskolak desagertzen doaz, horregatik behar dugu eskola atxiki herri guztien artean. Aldi berean, hemen ikastola bakarra Sohütan dago, badira seme-alabak



» **BEÑAT ELKEGARAY (ODACEKO PRESIDENTEA):**
 “Historikoki beti izan dira probintziak, gu Zuberoa gara. Beraz, azter dezagun ontsa elkarren arteko delegazioa eta errespetatu izan dadin gure nortasuna. Konfiantza behar dugu Euskal Elkargoan, baina guk kontrola atxikiz”



» **DOROTHÉE NABARRA (LABORARIA):**
 “IDOKIk laborantzan aritzeko duen manerarekin ados naiz. Kolektiboki aritu behar dugu, etxalde batean momentu gogorak bizi ditugu, eta kolektiboan gauzak beste gisa batez ikusten ditugu”



» **PATRICK KANPO QUEHEILLE (HERRIKO ETXEKO LANGILEA):**
 “Zuberoako Elkargoko Dominique Bosch presidenteak zioenez, ‘hobe da aberats batekin ezkondu ez eta pobre batekin’. Horretaz ziur naiz, guk badugu haien beharra, baina haiek ere gurea”

ikastoletan ematen dituzten gurasoak, gero eta jende gehiago lotzen ari zaio euskarari, bada kontzientzia hartze bat”.

Errugbia Kirol Elkartea eta Etxahun Kultur Elkartea bilgune biziki inportanteak dira Barkoxen. Hauetan dinamika baikorra dago, baina hori ere ez da aski *Kanpo*-ren aburuz: “Hartakoz, pentsatu dugu are baliabide gehiago behar dugula bilatu. Adibidez, etxalde anitz ari dira husten, lurra landu gabe geratzen dira. Desertifikazio gisako bat da. Etxalde horiek baliatzeko manera aztertzen ari gara, etxerik ez duten baina hemen bizitzeko enbeia dutenentzat aterabide bat xerkatzen ari gara”.

Orain hamar bat urte ingelesak hona etortzen hasi omen ziren, eta tokiko etxaldeak erosteko asmoa azaldu zuen hainbatek: “Beldurra bizitu genuen, baina krisia zela-eta ideia baztertu zuten nonbait, ez dugu nehor haboro ikusi. Hainbat hobe. Alabaina ikusi behar da hustu diren etxaldeetan zer egin ahal den, nola biziarazi. Zuberoan edo kanpoan bizi den jendeari proposatu behar zaio hona jiteko, edo arrajiteko”.

Turismoak laguntzen du herriko ekonomian? “Ez. Barkoxen ez hainbeste. Zuberoa bisitatzera heldu direnak Maulera jiten dira, Atharratzera eta Santa Grazira, edo Kakueta arroila ikustera. Jende eli bat jiten da herriko *Xilo* ostatura, ospetsua da ahateki goxoa ematen baitute. Horrek amiñi bat laguntzen du zerbitzuen eremuko tokiko jendea”.

Euskal Elkargoa ukan dugu hizpide. Hainbat zuberotar kostaldea nagusituko den beldur izan da historikoki: “Zuberoako Elkargoko Dominique Bosch presidenteak zioenez, ‘hobe da aberats batekin ezkondu ez eta pobre batekin’. Horretaz ziur naiz, guk badugu haien beharra, baina haiek ere gurea. Lurraldea osatu behar dugu, laborantza atxiki eta industria indartu. Gisa horretara ez da nagusituko turismoa, ezta kostaldeko populazioa ere”.

Euskaldunok elkarrekin aritu behar dugu bere ustez, bitartekoak sortu: “Zenbaitetik aginduak Paristik eta Bordeletik heldu direla diote, baina urratsak behetik ematen badira, gero eta jende gehiago

engaiatzen da politikan. Kontua ez da soilik sosa nondik heldu den, engaiatzen direnak herritarrak izatea baizik”.

Patrick *Kanpo* Queheillek biziki ontsa ezagutzen ditu gazteak, herriko dantza taldeko irakaslea baita: “Gazteengan sentitzen da gogo azkar bat herrian bizitzeko, beren lurraldea aitzina eramateko. Garai batean, gazteak Bordelera edo Parisera joaten ziren, hemen ez ziren gauzak baitziren han. Egun aurrerakuntzak gauza horiek guztiak ekarri ditu mendialdera. Itsasoa ere hurbil dugu...”, diosku *Kanpo*-k.

Horrela jarraitu du: “Gazteei sentiarazi eta erakutsi behar diegu posible dela hemen bizitzea, hemendik kanpo bezain ontsa edo hobekiago. Eta aldi berean erran behar zaie ere kanpora ateratzeko eta bizitzeko aldi batez, kanpoan dutena ere hemen badela edo izanen dela ohar-tuko baitira. Ziur arrajinen direla eta ekarpen bat eginen diotela lurraldeari. Horrek mugiaraziko du ekonomia”.

Zuberotarrak beren lurraldean biziko dira ere geroan. Joan-jinean, lurraldea bizirik atxikiko dute. ■



Jessica Martin Da Silva, diseinatzailea

“Jendeak ikusten gaitu gurpildun aulkian ia mugitu gabe eta pentsatzen du inutilak garela”

Jessica Martin irundarrak 24 urte ditu eta garun-paralisia du jaiotzetik. %95eko elbarritasuna dauka, gurpildun aulkian mugitzen dute eta apenas hitz egin dezake. Baina ez zaitzatela aurreiritziek engaina: bere egunerokoa ohean irudikatu baduzu, oker zabiltza. Buruan janzten dioten likornioari esker, idatziz komunikatu ahal izateaz gain, arroparako diseinuak egiten ditu, bigarren liburua ari da idazten eta ilustratzen, erakusketa egin berri dute bere margolan eta diseinuekin, hainbat enpresa eta proiektuentzako logoak egin ditu... “Bestela aspertu egiten naiz”, dio.




Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Jendeak bera ikusi eta “ai, gaixoa” esatea gorroto du. Hala dio bere bizipenei buruz idatzi zuen liburuan (*Desde otro punto de vista*). Orain haurrentzako liburu bat ari da idazten eta ilustratzen,

baina bere pasioari muzin egin gabe: zapatila, jaka, abaniko edota kamisetarako diseinuak egitea. Pertsonaia propioa ere sortua du (Poño izeneko marrazkiak) eta diseinuak ikusgai eta



salgai ditu berak egindako webgunean (ropadejessi.com). Hainbat enkargu jaso ditu dagoeneko.

Elkarriketa idatziz egin dugun arren, elkar ezagutzeko hitzordua Irungo Martindozenea gaztelekuan jarri dugu, bertan erakusketa antolatu baitute Jessica Martinen lanekin. Diseinuari buruzko tailer bat ere eman die gazteei. Pertsonalitate handiko emakumea da, perfektionista eta alaia. Arte grafikoei buruzko ikasketak ari da burutzen, eta aurretik animazioa eta 3D ikasketak eginak ditu, baita gradu bat ere, Arte Grafikoe-tan. Bi urteko gradua hirutan ateratzera behartu zuen administrazioak, erritmoa jarraitzeko gai izango ez zela ondorioztatuta, baina lezioa eman zien Jessica Martinek: klaseko nota onenak atera zituen.

Administrazioak pentsatu zuen ezingo zenuela gradua bi urtetan atera. Elbarriei buruzko ezjakintasun handia dago?

Nire ustez bai. Jendeak ez du gu ezagutzeko tarterik hartzen, eta gero hala-koak gertatzen dira.

“Elbarri” etiketa jarri diotelako, bere gaitasunak gutxietsi eta aukerak eman ez dizkiotelako... jendea bere ametsak gauzatu gabe geratzen dela uste duzu?

Bai, argi eta garbi. Jendeak ikusten gaitu gurgildun aulkian ia mugitu gabe eta pentsatzen du inutilak garela, edo ez garela gai hainbat gauza egiteko. Kale-

Jessica Martinek berak sortua da Poño estiloa: “Istoria kuriosoa da, Poño sortu nuen egunean katarroarekin nengoelako, inspiraziorik gabe. Pentsatu gabe margotzeari ekin nion...” eta halaxe jaiotzen irundarraren zigilu pertsonala (ikus eskuineko orriko irudiak). Goian, erakusketako hainbat lan; eskuineko orrian, besteak beste berak idatzi eta ilustratutako liburuak ikus daitezke: ‘Experiencias’ eta haurrentzako egiten ari den beste bat, katu baten istorioa.

tik baldin banoa eta norbait hurbiltzen bada nire gurasoekin edo laguntzen ari zaidan pertsonarekin hitz egitera, 5 urteko ume bati bezala zuzentzen zaizkit, eta atzetik dator betiko galdera gorrotagarri hori: “Hitz egiten al du neskatok?”, “ulertzen al du?”. Ongi ahoskatu ahalko banu, bati baino gehiagori argi utziko nioke ez naizela haiek uste duten modukoa.

Zure liburuan kontatzen duzu kritika eta irainei kasurik ez egiten eta bullyingari aurre egiten ikasi zenuela. Ez zen prozesu erraza izango.

Ez, ez da gauza erraza, eta niretzat ere ez zen batere erraza izan. Zorionez, une gogor horietan lagun on batzuk ere banituen, eta nire familia, jakina, baina familiak ez zuen inongo momentutan jakin zeinen gaizki ari nintzen pasatzen. Pixkanaka, nire burua onartzen hasi nintzen, naizen bezalakoa onartzen, eta norbaitek adarbakar deitzen bazidan (likornioa ia denerako erabili behar nuen

lako), edo lau-hanka (gurgildun aulkian joateagatik) edo “The Ring-eko neska” (nire barre eskandalosoagatik)... azkenetarako nire erantzuna izan zen: “Bai! Eta zer? Arazoren bat duzu horrekin?”. Nire bizitzaren kontrola hartzea eta abusoiei eta jazartzen nindutenei aurre egitea izan zen gakoa: jakinaraztea eta ulertaraztea ezin nindutela eta ezingo nindutela inoiz gehiago menpean hartu (eta gurgildun aulkiarekin oinen bat edo beste zapaltzea ere lagungarria da; gero nahigabe izan dela esan eta kito). Nire kasuan, halakoen aurrean irakasleek ez zuten ezer egin, eta behin eta berriz esan arren jaramonik egiten ez dizutenean, azkenean zure kabuz ekiten diozu edo hondora zaitzaten uzten duzu. Nik erabaki nuen nire kabuz ekitea.

Zein esanahi du zuretzat margotzeak, diseinatzeak? Nola lagundu dizu zure bizitzan?

Ez dit lagundu, besterik gabe nire pasioa da. Niretzat marrazten jartzea da beste mundu batean egotea, kolorez eta sormenez beteriko mundu batean. Erlaxatzeko edo isolatzeko beharra dudanean, margotzen hasten naiz. Arropa eta osagarrien gainean marraztea, eta ordenagailuan diseinuak eta ilustrazioak egitea ez dira gauza bera; margotzeko menpekoagoa naiz, gurasoen edo beste pertsonaren baten laguntza behar dudalako pintzela aldatzeko edo potean pintura gehiago botatzeko. Hori bai, likornioa



jantzi eta tableteko arkatza ipintzen badidate, orduak eta orduak bakarrik eman ditzaket tabletean eta ordenagailuan diseinatzen edo ilustratzen.

Poño izena darama zure zigilu pertsonalak (begitzat bi biribil beltz dituzten pertsonaiak, bata bestea baino handiagoa). Zer dago pertsonaia hauen atzean?

Historia kuriosoa da, Poño sortu nuen egunean katarroarekin nengoelako, inspiraziorik gabe. Pentsatu gabe margo-tzeari ekin nion, hiru borobil eta mar-ratxo bat (ahoa), eta emaitza gustatu zitzaidanez, bukatu arte jarraitu nuen. Gero, nire aitak ikusi zuen eta esan zi-dan, “hori poño bat da!”, eta izen horixe geratu zitzaion. Ez du esanahirik, eta batez ere kamiseta eta jantzietan mar-razten ditut.

Zein da zure inspirazio iturria, zure prozesu sortzailea?

Tim Burtonen pertsonaia eta pelikula guztiak ditut inspirazio iturri. Baita bel-durrezko pelikulak ere, edo erromatarren garaikoak, eta batez ere fantasiazko pelikulak. Nik neuk dudan sormenak asko laguntzen du; batzuetan harritu egiten naiz marrazten dudanarekin! Prozesua oso sinplea da: burua zuri utzi eta irudimenari hegan egiten uzten diot. Ñabarduretan arreta handia jartzten dut, baina egun txarrak ere badituz, diseinu oinarritzokoagoa egin eta kito, eta hara, jende batek horiek gustukoago ditu.

» “Nire bizitzaren kontrola hartzea eta *abusoiei* aurre egitea izan zen gakoa: ulertaraztea ezingo nindutela menpean hartu. Gorpildun aulkiarekin oinen bat edo beste zapaltzea ere lagungarria da; gero nahigabe izan dela esan eta kito”

» “Burua zuri utzi eta irudimenari hegan egiten uzten diot. Batzuetan harritu egiten naiz marrazten dudanarekin!”

» “Ez dut uste ezere**n** beldur
naizenik. Egokiagoa
litzateke esatea hainbat
kezka ditudala, esaterako
pentsatzea ‘zer ekarriko
dit etorkizunak?’”

**Zeintzuk dira zure ametsak? Diseinua-
ren arloan lan egiten ikusten duzu zure
burua?**

Diseinatzaile profesionala izan nahi dut, bai diseinatzaile grafiko, bai modako diseinatzaile. Arazo bakarra da ezin ditudala eskuak erabili arropa egiteko, baina pozarren hartuko nuke norbaitek esatea: “Aizu, nire bilduma berrirako hainbat eredu ordenagailuz diseinatzea behar dut, negoziatuko dugu?”. Gauza zaila dago eta halakorik suertatuko ez balitz, buruan dudan beste aukera da ipuinentzako ilustrazioak sortzea, edo marka korporatiboak, logotipoak... Zure galderari erantzunez, bai, ikusten dut nire burua diseinuaren arloan, eta esperantza dut hor lan egiteko.

Eta zeintzuk dira zure beldur nagusiak?

Zer da benetan beldurra? Beldurra iluntasunari, bakardadeari, porrot egiteari... Nire buruari galdetzen diot beldur errealik ba ote dugun. Nik adibidez pailazoei, likantropoei, urakan-haizeei diet beldurra, baina ez dut uste beldur errealak direnik, nik neuk sortutako beldurrak baizik, mota jakin bateko hainbeste film ikusteagatik. Beldurra bakarrik geratzeari, beharbada? Egia esan, gurasoak beti alboan izan ditut, behar izan dudan guztietan... Ez dut uste ezeren beldur naizenik, egokiagoa litzateke esatea hainbat kezka ditudala buruan, esaterako pentsatzea "zer ekarriko dit etorkizunak?", ■

Errementari filma

Fikzioa euskararen territorio libre

Paul Urkijoren pelikula berrian, pertsonaia bakoitzak hizkera bat darabil, istorioaren aberasgarri. Arabako euskara zaharra ere berpiztu dute. Film luzea martxoaren 2an emango dute lehen aldiz.




Dabi Piedra

Paul Urkijoren lehenengo film luzeak, *Errementari*-k, ikus-entzuleen irudimena kitzikatzen du, Patxi Errementariaren ipuinean oinarritutako istorio fantastikoa baita. Misteriozko giro berezi horri indarra emateko tresna da hizkuntza bera ere, euskara alegia. Pertsonaia batzuek Arabako euskaraz hitz egiten dute, beste batzuek batuan... nahasketa bitxi bezain eraginkor horrek toki eta garai urrunetara garamatza eta, gainera, pertsonaien arteko aldeak nabarmen-tzen ditu. Berdin hitz egin behar al dute herritar xume batek eta diputazioko komisario arranditsuak? *Errementari*-n, behintzat, ez.

Jatorrizko gidoia Paul Urkijok berak idatzi duen arren, Gorka Lazkano itzultzailea arduratu da hizkuntza kontuez. Hasieran euskara batuan behar zuten hitzak beste kolore bat hartzen hasi ziren. "Arabako euskara erabiltzea proposatu zidan Gorkak eta ukitu interesgarria iruditu zitzaidan", kontatu digu Urkijok. "Argi nuen euskara zahar bat behar nuela, istorioa XIX. mendean girotuta dagoelako". Arabako Mendialdean kokatutako filma izanik, behinola Araba ekialdean hitz egin zen aldae-

ran oinarritzea izan zen asmoa, Lazkanok azaldu digunez: "Ekialdeko idazki zahar batzuekin moldaketa batzuk egin eta hizkera ulergarri bat sortzea posible zela ikusi genuen". Sabando herriko Joan Bautista Gamizek XVIII. mendean idatzitakoa izan dute oinarri: "Istorioaren garaira eta tokira gehien hurbiltzen dena da".

Koldo Zuazo hizkuntzalariari aholkua eskatu zioten, Arabako euskararen ezaugarriak berreraikitzen aritu baita 1989tik. Makina bat testu eta lekukotza zahar aztertuak ditu, tartean Gami-zen 238 bertsoak. Ia hiru hamarkadako lanaren ondoren, bere jakin-mina oraindik ez duela "ase" kontatu digu hizkuntzalari eibartarrak. Hark idatzita-ko *Arabako euskara* liburua izan da Gorka Lazkanoren itsasargia, pertsonaiak arabarrez mintzatzen jartzeko esperimentuan. Gainera, Zuazok gidoia irakurri zuen eta iradokizunak egin zitzen. "Koldoren ekarpenarekin argiago ikusi nuen dena, batez ere aditzari dagokionez -dio Lazkanok-, hasieran Arabako ezaugarri gehiegi sartu nituen eta berak esan zidan batzuk alboratzeko; lastoa eta alea bereiztea bezala izan zen".



Deabrua hizketan

Euskara batuak ere badu lekua *Errementari*-n. Hizkera estandarra, zaindua eta jasoa denez gero, pelikulan agertzen diren zenbait pertsonaiarentzat ego-kiagoa da, euskalkiak ez baitu horiekin "funtzionatzen", Lazkanoren arabera. "Instituzioetako pertsonaiek eta deabruak hizkera landua, teatrala behar zuten eta horretarako batua zen aproposena", gaineratu du Urkijok. Deabruaren esaldi apokaliptikoak, esaterako, batuan jarri dituzte.

Beste aukera batzuk aztertu zituzten (*euskañola* kasu), baina "gustura" geratu dira batua aukeratu izanarekin. Orain dela 150 urte euskara baturik ez zegoen, baina, Lazkanok ohartarazi duenez, diputazioko ordezkari batek euskaraz egitea ere ez da oso errealista. Zinemaren magia da hori. Gainera, Ramon Agirre eta Eneko Sagardoi aktoreek euskara batua "oso modu naturalean" darabilte-la azpimarratu du.

Narratzaileak, ordea, Ataungo euskar-
an hitz egiten du, Patxi Errementari-
aren ipuina bildu zuen Joxemiel Baran-
diarani omenaldia egiteko. Hori gutxi
ez, eta beste euskalki batzuk ere erabili



dituzte, informazio gehigarria emateko, Lazkanoren arabera: “Adibidez, Gotzon Sanchezen pertsonaiak, herriz herri salerosketan dabilen kinkilariak, Oiar-tzualdeko hizkera bat egiten du, hori nahikoa izan liteke jakiteko hura ez dela herrikoa”.

Euskararen aldaerekin sortutako jo-koak istorioa “aberastu” egiten duela uste du Lazkanok. Alde batetik erabili dituzte trataerak (hika, zuka, berorika), bestetik erregistroak (kolokiala, jaso), eta azkenik, euskalkiak. “Pertsonaiei izaera ematen diete, pelikula janzten laguntzen du”. Koldo Zuazo bat dator horretan: “Ezin ditugu denak berdin hitz egiten jarri, ez da benetakoa. *Errementari*-n Arabako herri txiki bateko bizilagunak agertzen dira eta haiekin batera abadea, diputazioko ordezkaria, deabrua... bidezkoa da bakoitzak bere modura hitz egitea”.

Aldaera ezagunak

Paul Urkijo zuzendariak garbi du hala-ko ezaugarriek eragina dutela filmaren izaeran, are gehiago fantasiakoa izanik. “Testura bitxia ematen dio, euskaraz da-
kigunok berehala ohartzen gara zerbait

» Hika, zuka eta berorika
erabili dituzte filman,
baita erregistro kolokiala
eta jaso ere,
eta euskalkiak

berezia dagoela”, dio zuzendariak. Bere-
zia baita, zinez deigarria *Errementari*-ko
euskara, baina ulargarria era berean.
Arabako euskara birsortzean baldin-
tza hori izan dute gogoan uneoro. “Ez
da izan defuntu bat berpiztea bezala,
hartu ditugun ezaugarri gehienak gaur
egun toki askotan erabiltzen dira”, dio
Lazkanok.

“Euskaldun gehienentzat ezagunak
dira erabili ditugun aldaerak, batzuetan
Mendebaleko euskararen antza hartzen
zaio, beste batzuetan Goierrikoa, Bu-
rundakoa... nahasketa bitxia da”. Hona

behinolako Arabako euskaratik hartuta-
ko ezaugarri batzuk: Hitz amaierako -a
-ea bilakatzea (*alaba-alabea*), partizio-
pioko -i kentzea (*ikus dot*), hartu egizu
(*ezazu-ren orde*) eta abar.

Aditza osorik berreraikitzea nahasga-
rria izango zelakoan, Urdiaingo formak
erabili dituzte, Koldo Zuazok hala ahol-
katuta. “Arabako euskararen gainean
gauza asko dakizkigu, baina ez ditugu
guzti-guztiak ezagutzen eta aktoreek,
eroso lan egiteko, hizkuntza oso bat
behar dute”, zehaztu du Zuazok. Hori
konpontzeko Urdiainera jo dute. “Nafa-
rroan dago, baina argi ikusten da hango
bizimodua Arabarekin lotuta egon dela”.

Lazkanoren ustez, “zeharka, hizkun-
tzalarien ikerlanak entretenimendu-
aren bidez dibulgateko balio du, eta
Arabaren eta euskararen arteko lotura
historikoa erakusteko”. Zuazok dio “poz
handia” hartu duela berak urte luzez
ikertutako hizkerak zineman entzungo
direlako. Lazkanoren lana, Urkijoren
jarrera eta aktoreen profesionaltasuna
“eskertzekoak” izan direla gaineratu du.

Nolanahi ere, euskalkiak eta batua uz-
tartzeari ez da *Errementari*-ren ekarpen
bakarra, ezta esanguratsuen ere, Gor-
ka Lazkanok itzultzailearen ustez. Maila
horretako genero fantastikoko film bat
euskaraz egitea da aipagarriena. “Ara-
bako garai bateko euskararekin egin du-
gun ariketa berritasuna izan daiteke,
baina ereduari dagokionez ez dugu ezer
berririk ekarri, gainerakoek bezala guk
ere ahal duguna egin dugu”. Hori guz-
tia, entzuleak gogoan dituztela, jakina:
“Beti zalantzan ibili gara, nola ez uxatu
euskaldun berriak eta nola ez aspertu
gainerakoak”.

Errementari gaztelaniaz edo ingele-
sez errodatzeko aukera sortu zitzaion
Paul Urkijori, baina beti argi izan du Pa-
txi Errementariaren inguruko film hau
euskaraz izan behar zela. Horri esker,
euskarazko eskaintza zabalagoa izan-
go da zinema-aretoetako karteldegian.
Ariketa dotorea egin dute Urkijok, Laz-
kanok eta Zuazok, euskararen hizkerak
eta erregistroak ematen dituzten auke-
rei zukua aterata. “Pelikulak euskararen
askotariko koloreak batzen ditu, horrek
bizitasuna ematen dio istorioari”, dio
zuzendariak. Gorka Lazkanoren ustez,
“noizean behin konplexurik gabe joka-
tzeko baimena eman behar diogu geure
buruari, eta fikzioa, behintzat, euskara-
ren territorio libre bihurtu”. ■

SAN KRISTOBAL GOTORLEKUKO EMAKUME SOLIDARIOAK

HARRESIEN ERTZEAN LURPERATUTAKO AHOTSAK

Ezkaba mendian inprobisatutako kartzelaren barruan gertatutako tragediaz bagenekien zerbait, ez hainbeste murru horietatik at emakume taldeek eraman zuten borrokaz. Amaia Kowasch ikerlari iruindarrak presoek biziraupenerako ezinbesteko izan ziren itzaleko sare horien protagonistei ahotsa eta aurpegia jarri die orain.

**Urko Apaolaza Avila****@urkoapaolaza**

ARGAZKIAK: 'SAREAK EHOTZEN'



Ezker-eskuin, Maria, Concha, Pilar eta Rufina Iturralde, erdian amona Ramona Urrestarazu dutela. Iruñeko Catachú tabernakoak, 1938an Maria, Pilar eta Rufina abilotu egin zituzten, haien ama Bibiana Rodríguez eta aita Isidoro Iturralderekin batera; San Kristobaleko presoek laguntza ematea egotzi zieten. Amona ere eramane nahi izan zuten preso, baina koltxoi azpian gordeta zituen txanponak lapurtuta konforme geratu ziren poliziak.



1938ko apirilaren 11n, Iruñeko Alde Zaharrean dagoen Lindatxikia kale estuko Catachú jatetxe-taberna ezagunean polizia militar frankista sartu zen ezustean sarekada bat egitera. Astelehen Santua izaki, ostatua jendez lepo zegoen bazkalostean, eta dozenaka lagun atxilotu zituzten, tartean hango nagusiak: Bibiana Rodriguez eta Isidoro Iturralde; haien seme-alaba batzuk ere eraman zituzten zezen plaza atzealdean komisaria gisa atondutako udal biltegi edo "txakurtzegira".

Besteak beste, han ziren Rufina eta Maria Iturralde Rodriguez eta Emakume Abertzale Batzako beste kide batzuk ere. Horietako asko atxilotu, torturatu eta espetxeratuak izan ziren, San Kristobaleko preso errepublikarrei laguntza ematea leporatuta.

Catachún harrapatutakoak ez ziren bakarrak ordea. Gerra urte horietan ha maika emakume antolatu ziren taldeetan, senide nahiz ezezagun, Ezkabako gotorlekura eta Iruñeko probintzia-presondegira janaria eta arropa eraman, bisitak egin eta edozelako laguntza eskaintzeko hango presoei. Amaia Kowasch Velasco gizarte langile eta sexologoak (Iruñea, 1990) *Sareak Ehotzen* liburua kaleratu du Nafarroako Gobernuaren eskutik, haien guztien historia

bildu nahian: "Emakume horiek asistentzia lanak egin zituzten, baina nabarmendu behar dena da lan kolektibo bat izan zela, antolatua, eta 1936tik aurrera klandestinoa", azaldu digu.

San Kristobaleko beste botila huts horiek

San Kristobaleko gotorlekua 1934tik aurrera presondegi bilakatu zutenetik, zigorrerako eta mendekurako esperimentazio toki ilun izan zen. 1936ko udazkenetik aurrera 2.000 jende izan zuten pilatuta baldintza penagarritan. Ezaguna zaigu 1938ko maiatzean 798 preso ihes eginen saiatu zirelako: zientoka hil zituzten ehizakiak bailiran. Beste hainbeste hil ziren ziegetan gaixotasunak eta goseak jota. "Botilen hilerria" deiturikoa dugu horren lekuko, hango kapilauak kristalezko botila bana uzten zuen lurperatutako gorpuen ondoan, hildakoaren izena eta heriotzaren arrazoiak barruan idatzita zituela.

Pixkanaka ari gara jakiten San Kristobaleko presoek jasandakoa, azken urteetako ikerketa historiko eta arkeologiari eskerrak. Baina ez da nahikoa gertatutakoa osorik jakiteko, ezkutuko beste botila huts asko baitaude lurpetik kanpo. Kowaschek ongi azaldu digun moduan, orain arteko ikerketak "androzentrikoak" izan dira, gizonen historian zentra-

tu dira, eta San Kristobalen heriotzaren kontra egunero izaten zen borrokaldian emakumeek izandako parte-hartzeaz apenas idatzi da. Zergatik ordea?

"Emakumeek gerra zibilean eta diktaduran jasandako errepresioa oso ezberdina izan zen eta isiltasuna eta beldurra nagusi dira oraindik", dio ikerlariak. XX. mende hasierako emakumeen eskubideen aldeko lorpenak errotik ezabatu nahi izan zituen frankismoak, hauek bazterreko kontakizunean utziaz. Ideia horretatik aldentzen zirenak, gainera, gogor erreprimitzen zituen. Baina hala ere izan ziren lehen unetik erregimenari aurre egin ziotenak: "Testuinguru politiko horretan, batzuek ihes egin zuten baina beste batzuk geratu egin behar izan ziren. Azkeneko talde honetan, aukera erreal bakarra zen antolatzea eta demokratikoki erabakitakoa defendatzea, errepublika alegia".

San Kristobaleko emakume solidarioen historia 1934an hasten da. Urte hartako urriko iraultzaren ondorioz preso hartutako ezkertiarrek laguntzeko sareak sortu zituzten. Ideologiak bultzatuta, talde sozialistak, komunistak eta anarkistak igotzen ziren batik bat Ezkaba mendian gora presoak ikuster, Nazioarteko Laguntza Gorriaren babespean esaterako. Iruñeko egunero-

Emakumeak San Kristobal gotorlekuan 1935ean.



ko bizimoduan eragin nabarmena izan zuten halako elkartasun mugimenduek eta amnistiaren aldeko aldarrikapen politikoak ere egin zituzten.

1934: ehotzen asteko unea

Altzaxamendu faxistarekin baina, emakume haietako asko atxilotuak eta torturatuak izan ziren sare horietan egoteagatik. Basilisa Blázquez Funesen jaio zen, ezkerreko ideiak zituen eta, haren alaba Maria Luisak gogoan du nola ama eta beste emakume batzuk Iruñeko Casa del Pueblo elkartu eta zozketa bidez erabaki zuten San Kristobaleko zein presori lagundu; astean behin igotzen ziren tabakoa eta jakiekin bisitak egitera jotak kantatzen: “...Y en el fuerte de San Cristóbal / se nos vengó la reacción...”

Gerra hasi zenean sei urte besterik ez zituen Maria Luisa txikiari, ordea, beste irudi bat geratu zitzaion buruan iltzaturik: ama etxeko egongelan ilea moztuta, errizino-olioa edanarazia eta negarrez, ondoan bi erreketek zituela. Basilisa urtebetez eduki zuten preso Iruñeko emakumeentzako kartzelan, bere espedientearen jartzen duenez Nazioarteko Laguntza Gorriaren bidez iheslariak mugaz bestaldera pasatzeagatik. Ondoren deserriratu egin zuten eta azkenean Azagra herrian amaitu zuen familiak.

Patu antzekoa izan zuten Guadalupe Ezkurrak, Josefina Guerendainek, Juana Astondoak eta beste askok: umiliazioa eta mendekua. Azkeneko honek Kowaschi kontatu zion Ezkabarako bidean beldurra pasatzen zutela eta janaria arropa tartean gordetzen zutela kartzelara sartzeko.

Sareak ehotzen liburua osatzeko, egi-leak bost urteko lana du bizkarrean, zenbaitetan zuzeneko testigantzak bildu ahal izan ditu –dena 70 emakumerekin izan da–, Juana Astondoak hil aurretik utzitakoa bezalakoa; beste batzuetan haien oinardekoek eman dute lekukotasuna: “Kasu askotan ez dute berririk izan haien amonak, izebak edo amak azken hatsa eman arte –dio ikerlariak–. Baina gertatutakoaren jakinaren gainean daudenek, batez ere emakume horien aitorpena bilatzen dute, oroimena bizirik mantendu eta egia berreskuratzeko”.

Emakume Abertzale Batza

1934ko iraultzako presoak 1936ko Fronte Popularraren garaipenaren os-



Basilisa Blázquezen kartzelako espedientea.
II. Errepublikan San Kristobaleko presoak laguntzen
aritzeagatik zigortu zuten 1936ko gorpistek.

» AMAIA KOWASCH:

“Emakumeek gerra zibilean eta diktaduran jasandako errepresioa oso ezberdina izan zen eta isiltasuna eta beldurra nagusi dira oraindik”

teko amnistiarekin irten ziren kalera, baina hilabete gutxira, Emilio Mola altzaxamenduaren konspiratzaile nagusiak nafar hiriburutik emandako kolpearen ondorioz berriro bete ziren Ezkaban zulatutako ziega umelak.

Gerra garaian Emakume Abertzale Batzak (EAB) hartu zuen protagonismoa presoak laguntzeko orduan, baina kasu honetan euskal batailoietako gudariek zuten harremana soilik. Kowaschek horren zergatia zein izan daitekeen azaldu digu: “Ikerketa urte hauetan aurkitu dudana hori da, baina arrazoi konkretu batengatik: Petra Irigoien EABeko kide zena bizi delako 107 urterekin. Segur aski sozialisten, komunisten eta anarkisten artean ere egongo ziren halako sare asko”.

Petra Irigoien eta bere hiru ahizpak iruindar familia abertzale bateko kideak ziren eta gerra urteetan makina bat preso eta senideri lagundu zioten. Haren bidez dakigu Emakume Abertzale Batzako askoz emakume gehiago inplikatu zirela sare horretan: Magdalena, Amalia eta Maria Camino Vigura, Nati eta Dolores Ziga, Felisa eta Maravillas Redin... Horietako asko, hain zuzen, 1938ko Catachúko operazioan atxilotu zituzten.

San Kristobaleko gotorlekuko arauak oso zurrunk ziren, presoak normalean isolatuta egoten ziren eta bisitak errenkan jarrita egindako “ahozko komunikazioak” ziren: astean 15 minutuko elkarriketa laburra, funtzionarioa aurrean zutela. Ezin zuten hitz egin gai politiko eta sozialen inguruan, ezta kartzelako kondizioez ere. Gainera, bisitariak ahaide izan behar zuten; horregatik, Iruñeko emakume askok gezurra esan eta koinata itxurak egiten zituzten, horrek zigor gogorra ekar zezakeen arren.

Gerra lehertu eta berehala hasi ziren antolatzen emakumeak altzaxamenduaren epizentro izan zen Iruñea txikian –Mujeres Antifascistas erakundean, adibidez–. Nondik zetorkien ausardia heriotza zabaltzen ari zen munstroaren aurrean halako arriskuak hartzeko? “Gizonak ez ziren baliente bakarrak –iardeksi du ikerlariak–. Gerra guztietan daude ikusten ez diren gerra paraleloak, eta askotan gudu zelaian baino ausartagoak izan ohi dira horietan dabilizanak, kasu honetan emakumeak”.

Hori da hain justu Kowaschen lanaren muinteko bat, asistentzia hutsetik harago, erakustea emakumeek politikoki eta sozialki paper garrantzitsua jokatu zutela. Ikerlariaren ustez, San Kristobalen lagundu zutenek izandako rolaz gain, badira beste jokabide asko oraindik ezagutzen ez ditugunak, “esaterako, euren familiak aurrera atera behar izan zituztenenak edo Iruñeko emakumeen kartzelan egon zirenenak. Gaur egun ez dira ikertzen eta aitortzen halakoak”.

Azagratik Iruñera, 101 kilometro

Aparatu frankistak espetxe politika instituzio zigortzaile gisa diseinatu zuen boterera iritsi bezain laster, eta helburu hori lortzeko presoan urruntzea zen metodo efikazena, orain ere den moduan. Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak *Sareak ehotzen* liburua- ren hitzaurrean gogorarazi du 23 urtez kartzelan egon zen Fernando Macarro Castillo *Marcos Ana* poetak dokumental batean esandakoa: presoan ahulunea beti izango dira etxekoak. “Preso batek kartzelan pasean dabilela kezka itxura ageri duenean –dio Etxeberriak– mai-zenik bere familiarekin lotutako arazo batengatik da”.

Kilometro askora dagoen presoaren ezintasun horrekin jokatzeko du kartzelako sistema errepresiboak disidentea menperatzeko. Baina alderantziz ere gertatzen da, senideek sufrikario handia igaro behar izaten dute ezezaguna zaien urrutiko toki batean. Hala gertatu zen San Kristobalen presoak zituzten Espainiako Estatu osoko senideekin. 1934 eta 1945 artean gotorlekuan giltzapetutako 4.796 lagunetik apenas 130 ziren nafarrak; gehienak Bizkaia, Madril, Valladolid, Segovia edo Asturiasen eramanak ziren.

Aitzitik, presoaren senideek ere euren artean sareak sortu zituzten jatekoa edo arropa bildu eta bi asteen behin elkarrekin eramateko gotorlekuraino, autobusean, trenean edo oinez bidaia luzeak egin ostean; hala gertatu zen Segovian, Valladoliden edo... Azagran. Iruñetik 101 kilometrora dagoen Erriberako herri ezkertiar laiko hartako 30 preso inguru zeuden San Kristobalen. Haietako baten alabak, Pilar Martinezek, gogoratzen du hiriburuan bizi zen izeba batek Azagrako presoaren arropak *La Tudelana* autobusean bidaltzen zituela eta hango emakumeek garbituta bueltatzen zituzten.

Beste emakume askok, ordea ez zuten modurik sorterrian geratzeko, ondasunak lapurtu zizkietelako edo lanik ez zietelako ematen. Iruñean gutxienez senidea ikusteko aukera izango zuten... Haietako asko hirian geratu ziren, baina jakina, ez ziren oharkabea pasatzen eta zailtasun handiak bizi izan zituzten. Nolanahi ere,



Emakume askok koinata itxurak egiten zituzten presoak bisitatu ahal izateko, horrek zekarren arriskuarekin.

» Paradoxikoa da, erregimena mantentzeko sorturiko presondegiak sistemak, ordena soziala kolokan jartzen zuen Iruñean

iruindar anonimo askok lagundu zien, jakiak eman edo lana eskainiz.

Egunerokotasun horrek harreman estuak sortu zituen, kontrol soziala zalan-tzan jartzeraino. 1944an Nafarroako Diputazioko lehendakariordeak gutuna bidali zion Defentsa ministroari, presondegia itxi zezala eskatuz. Bere esanetan, presoak libre uzterakoan hirian geratzen ziren senideekin, "...*produciendo un sedimento morboso, un núcleo posiblemente perturbador...*". Paradoxikoa da, erregimena mantentzeko sorturiko

presondegiak sistemak, ordena soziala kolokan jartzen zuen.

Borroka anonimo baten ajeak

San Kristobaleko presoek lagundu zieten emakume solidarioen testigantzetan, etengabe aipatzen dituzte gerraurrean nabarmendu ziren militanteak. Ez soilik Clara Campoamor edo Victoria Kent bezalako politikari esanguratsuak, baita Euskal Herrian gertukoago ditugun Julia Alvarez diputatu nafar sozialista edo Julia Fernandez Iruñeko

lehen ikastolaren eta Emakume Abertzale Batzaren sortzaileetakoa ere.

Amaia Kowaschen aburuz ahazturiko kontakizuna osatzeko orduan garrantzitsua da emakumeek erreferentzialtasuna lortzea: "Naiz eta ezagunak ziren, ez dute beharrezko protagonismoa izan historian".

40 urtez frankismoak inposaturiko familia ereduaren eremu pribatura bazterturik egoteak, ordea, oraindik badakar atze beldurrik: "Elkarrizketak egi-terakoan sumatu dut beldur hori, eta batez ere ikusi dut liburu argitaratzerakoan: askok nahiago izan dute anonimotasunean geratu". Orain arte inork ez du haien lana aitortu eta ezagutze-
ra eman, eta ondorioz, San Kristobaleko harresien ertzeko historia horiei garrantzia kendu eta isildu egin dituzte: "Pixkanaka, ikerketa askoren ostean uste hori aldatzen ari da eta emakumeak konturatzen ari dira euren parte-hartzea ezinbestekoa izan zela". ■



BAT 105
X. HAUSNARTU
EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKA
SARIAK

Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat.aldikaria@soziolinguistika.eus
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

1. SARIA: Urko Ikardo Enparan > Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean.
2. SARIA: Jon Ander Kuartango Atxa > Euskararen ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean.
3. SARIA: Garikoitz Goikoetxea Etxeberria > Euskarazko hedabideen kontsumoa Tolosaldean.
 - Eneko Oiartzabal Gerriko > Zenbat denboraz bizi gara euskaraz? Hizkuntza-erabilera neurtzeko ikuspegi berri bat.
 - Leticia Garcia Fernandez, Nekane Arratibel Insausti eta Asier Irizar Mezo > Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko 1.mailako ikasleak ulertzeko gakoak.

MEDIKUNTZAREN URREZKO AROA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Egipto, K.a. I. mendea. Aurpegiko azala garbitzeko Kleopatra erreginak urrezko maskara batekin lo egiten zuela esaten da. Garai bertsuan, Erroman, urrea zuten pomadak erabiltzen zituzten azaleko arazoak sendatzeko. Tso Hung (281-361) txinatar sendagileak uste zuen bizitzaren elixirra likidotan disolbatutako urrea zela.

Tso Hungen ideari jarraiki, alkimia-
ren eskutik, Erdi Aroa izan zen urrearen urrezko aroa medikuntza tratamendutan. Al-Razi eta Avizena pertsiarrek, Gilbertus Anglicus eta Geoffrey Chaucer ingelesek, Bernard Gordon frantziarrak... denek errezetatu zieten urrea pazienteei (aberatsenei) gaitzak sendatzeko.

Konstantino Afrikarrak, XI. mendean zera idatzi zuen: "Urreak urdail akastunak sendatzeko, beldurtiak lasaitzeko, eta bihotzeko gaitzak arintzeko propietatea du. Baieztatuta dago eraginkorra dela melankoliaren eta burusoiltasunarek aurka ere".

Zauriak ixteko ere ezin hobe omen zen; Serapion Gazteak XII. edo XIII. mendean jaso zuenez: "Zauria urrez kauterizatzen dugunean, ez du barbarik eragiten eta azkarrago eta hobeto sendatzen da". Begietako gaixotasunak, lepra eta orotariko izurriak sendatzen ahalegintzeko ere erabili zuten. Eta Kleopatrarren jarrai-




Urrea Antzinarotik erabili izan da medikuntzan. Gaur oraindik erabiltzen da, baina modu mugatuan, garestia delako, jakina, eta propietate sendagarriez gain, albo efektu kaltegarriak dituelako.

tzaileak ere bazeuden, urreak gaztetasunari eusten laguntzen zuela uste zutenak.

Aro Modernoaren hasieran urrea sendagai preziatua zen oraindik eta urreztatutako pilulak ekoizten ere hasi ziren. Baina XVIII. mendean eszeptizismoa zabaldu zen urrearen propietate sendagarrien inguruan. Eta, gainera, albo-efektuez jabetzen hasi ziren, urrea ez da erraz disolbatzen eta giza gorputzarentzat zaila da xurgatzen. Toxikoa izan daiteke eta kalteak eragin ditzake gibelean eta giltzurrunetan.

Likido batean disolbatutako urre nanopartikulei urre koloidala deritze. Xur-

gatzeko errazagoa denez, XIX. mendean amaieran urre koloidalak bultzada eman zion berriro metal preziatuari sendagai gisa. Alkoholismoa eta obesitatea tratatzeko erabili zen nagusiki garai horretan. Asma, sifilisa, minbizia edo tuberkulosia urre koloidalez tratatzeko ahaleginak egin dira, baina, gaur, krisoterapia -hala esaten zaio urrearen erabilera terapeutikoari- nagusiki artiritisa arintzeko erabiltzen da, modu oso mugatuan bada ere. Gainera, produktu kosmetikoetan ere erabiltzen da, bi milurte eta gero Kleopatrank *influencer* izaten jarraitzen duela erakutsiz. ■



PACUNAM / CANUTO & AULD-THOMAS

LIDAR, dena ikusten duen arkeologoa

LIDAR teknologia (Laser Imaging Detection and Ranging) laser bidez objektuak antzemateko eta neurtzeko sistema da. Arkeologian oso baliagarria da bereziki landarediak estaltzen dituen eremuak aztertzeko. Hala, Guatemalako oihana arakatzen hasi dira gailuarekin eta emaitzak harrigarriak izan dira: Tikal aztarnategi maian beste piramide bat aurkitu

dute, Kunal zentro zeremoniala deskubritu dute, El Palmar hiria uste baino 40 aldiz handiagoa dela ondorioztatu dute... 2.100 km² aztertu dituzte orain arte, beste 20.000 geratzen zaizkie, baina dagoeneko maien historia aldatu du LIDARek. Zibilizazioak 1 edo 2 milioi biztanle zituela uste zen, baina datu berrien ondorioz, 20 milioi inguru zirela diote orain adituek. ■

Zenbat Euskal Herri?



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Beldurkundera ez, baina begirune eta lotsa arteko zerbaiten punttu batekin erantzuten dut, gero eta maizago, landareetan ia edozer galdetzen didanari. Eta punttu hori gero eta handiagoa da.

Berdantza-bart galdetu zidan batek ea tomatea (*Solanum lycopersicum*) noiz erein behar duen. Ni ohiko erretolikiari bidea emateko pronto, baina orain eten-gabe bueltaka dudana zalantzari zirrikitua ireki nion, eta bere galderari beste galdera batekin erantzun: non biziko dira tomate horiek? Bizitoki izango duten horren arabera erein eta gero landatu beharko dira tomate landareak.

Ez da gauza bera eguteren edo ospellean bizitzea. Ezta itsasbazter gozoko Ispasterren edo Goierriko Itsason edo Basaburuko Itsason edo Itsasun edo Itsasondon. Eta nolako lurrian, eta nola antolatutako sailean biziko da? Baratze irekian, etxeko atariko horma epelaren babesean, negutegian?



Denok Euskal Herri osoan intsusaren kimu berria edo lorea noiz irekitzen den jasoko bagenu, urte gutxiko datuekin mapa agro-klimatikoa osatzen hasiko ginateke.

Ohitu behar gara: lur sail bakoitza unibertso bat da. Bat eta bakarra, parekorik ez duena. Hala ere, sail asko antzekoak izango dira, eta haien peskizari ikasiko dugu. Gurearen modutsukoak diren lurretan gertatzen denari zorrotz begiratu behar diogu. Eta jaso, gertatzen dena jaso, idatziz, argazkiz, bideoz...

Hori da ikasteko era bakarra. Horrela ikasiko dugu esaten toki bakoitzean landareen aldaketak noiz gertatzen diren. Horri deitzen zaio fenologia. Wikipediak honela definitzen du: klima eta urtaroen gorabeherak izaki bizidunengan duten eragina aztertzen duen zientzia-arloa.

Adibidez, gure etxean iaz baino zortzi egun lehenago eman ditu kimu berriak aurturintsusak (*Sambucus nigra*). Iaz oso goiz ernamuindu zela iruditu zitzaizdan, eta argazkia otsailaren 1ean jarri nuen Instagramen. Aurtengoa urtarrilaren 23an jarri dut. Ikusiko dugu ea horrek aurtengo urtean zer eragina duen landareetan.

Denok Euskal Herri osoan intsusaren kimu berria edo lorea noiz irekitzen den jasoko bagenu, urte gutxiko datuekin mapa agro-klimatikoa osatzen hasiko ginateke. Horrekin toki bakoitzean lanak noiz egin jakiteko. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo!

Etxe aurrean dugun lursaillean hiru piku ditugu. Kanpoko espaloiarekin muga egiten dute, eta nahiz eta fruitu eta hosto gehienak barrualdean erortzen diren, zuhaitzaren

atal bat kanpoaldean dago, etxeko mugetatik kanpo. Beraz, uda bukaeran espaloia pikuz eta hostoz betezen da. Kanpoaldeko atal hau moztu nahiko nuke. Kalte txikiena egiteko nola eta noiz egin jakitea gustatuko litzaidake.

Etxahun Arregi Pikabea (Sopela)

Pena da pikondoa inauteria, izan ere, egur oso ahula du, eta zauriekin asko sufritzen du. Hala ere, nahitaezkoa baderitzozu inausketa kimuak mugitzen hasten denean egin. Kontuz ibili ebakitako zatiekin eta zauriekin, inola ere ez ukitu. Bere izerdiak erre egiten du. Ezagutzen dut inolako babesik gabe pikondoa inauteren ibili eta ospitalean bukatu zuen bat.



Mejanako azken baratzezainak



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Tuterako baratze gune bereziena da Mejana, irla moduko lur zatia: duela hiru edo lau mende Ebro ibaiaren ibilbidea aldatu, eta sedimentazio-lur aberatsak gelditu ziren bertan”. Patxi Uriz Domezain *Los últimos de la Mejana* dokumentalaren produktore eta zuzendariak eman dizkigu azalpenok. Santi Cordon Tuterako baratzezain eta sukaldariarekin sortu du proiektua.

Barazkien hirian ere, baratzezainen gainbehera

Cordonen proposamenetik abiatu zen dokumentalaren ideia. “Urtebete zen bere aita, Mejanako azken baratzezainetakoa, hil zela, eta azken ortuzain horien lana dokumentatzea gustatuko litzaiokeela esanez deitu zidan”, dio zuzendariak. Nafarroako Gobernuak diru-laguntzetara aurkeztu zuten proiektua, eta lanari ekin zioten laguntza jaso bezain pronto.

1980an Tuteran 1.500 baratzezain bazeuden, egun 25 besterik ez dira. 30 urtetan gertatu den aldaketa erabatekoa da. “Egun ez dago naturaren zikloekin batera eta artisau eran lan egingo duen belaunaldien arteko erreleborik. Agroindustriak sekulako kaltea egin die baratzezain txikiei”, dio Urizek. Dokumentalaren helburua gelditzen diren

azken baratzezain horien lanari balioa ematea da, baita haien jakinduria guztia zabaltzea eta jendea egungo elikaduraren paradigmaten inguruan hausnarreara bultzatzea ere.

“Gauzarik lokalena internazionala da”

Tuteran ez ezik, dokumentalaren grabaketak Almerian eta Murtzian ere egingo dituzte: “Hemengo nekazari txikien laborantza moduen eta agroindustria-renaren arteko paralelismoa egitea da asmoa”, dio zuzendariak. “Hego Amerikan kinoarekin edo sojarekin gertatu den bezalaxe, hemen barazkiekin ari da gertatzen. Egund Tuterako kukuluak Murtzian ekoizten dira, eta han inork ez du kukulurik kontsumitzen...”. Egoera aldrebesaren beste adibide bat.

Japoniara bidaiatzeko aukera ari dira pentsatzen orain egileak. Masanobu Fukuokak permakulturaren inguruan utzitako ondarearen ingurukoak dokumentalean jasotzea litzateke ideia. Japoniara joan edo ez, ekainerako lana bukatuta edukitzea espero dute egileek, urri amaieran dokumentala aurkeztu ahal izateko. Bertan azalduko diren “Mejanako azkenak” benetan azkenak izan ez daitezten. ■

www.bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Otsailak 15: Donostia

Gipuzkoako ontziolak. Azken itsas arotzen historia, teknika eta bizimodua liburuaren aurkezpena. 10:30ean Untzi Museoan. Antxon Aguirre Sorondoren hil osteko obra.

Otsailak 15: Tuter

Olio ekologikoaren dastaketa. 18:30ean, Rúa Gizarte Etxean.

Otsailak 15: Eibar

Landareak Lantzen agenda-liburua aurkeztuko du Jakoba Errekondok. 19:00etan, Eta Kitto! euskara elkartearen egoitzan (Urkizu kalea 11).

Otsailak 16: Barakaldo

Lorategi botanikoa ezagutzeko bisita gidatua. 11:30ean Ramon Rubial Lorategi Botanikoan.

Otsailak 17: Hondarribia

Fruitu arbolen zaintza eta inausketa ikastaroa Josu Osarekin. 9:30ean Endanea Gardenen.

ZURE HERRIKO EKINTZEN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

AGENDA OSOA NOIZNAHI IKUSTEKO

www.bizibaratzea.eus

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

azoka

JARRI ZURE GAUZAK SALGAI AZOKAN

Nork? ARGIAren Azokan salgai jar dezake edozein herritar, eragile, elkarte, enpresak.

Zer? Era guztietako salgaiak: produktuak, etxeko ekoizpenak, bigarren eskuko gauzak...

Nola? Oso erraz. Sartu argia.eus/azoka helbidean, eta klikatu "Saldu" atala.

Horko formularioa 5 minutuan betetzen da.

Zertarako? Zure salgaiak Euskal Herriko herritar denengana iristeko, balio berak partekatzen ditugun jendearekin harremanak sendotzeko, eta ARGIA proiektua indartzeko.

www.argia.eus/azoka


HIZTERIA ESKUKO HIZTEGIA

Histeria gaixotasun kronikoari egiten dio erreferentzia. XIX. mende amaierara arte, emakumeei diagnostikatu ohi zitzairen ondoez hedatuena izan zen histeria, 75 orrialdeko sintoma-zerrenda luze bat zuena. Egun, medikuntzan ez da termino hau erabiltzen, baina beste zenbait eremutan oraindik irauten du (ikus: "histerika bat zara" esamoldea).

Histeriadun emakumeak sendatzeko, medikuek masajeak ematen zizkieten klitorian eta baginan, eskuz edo bibragailuen bidez. "Paroxismo histerikoa" lortzea zen masajeen helburua, hau da, emakumea orgasmora iristea.

Asmatutako gaixotasun horri jarraiki, *Histeria* ere asmatutako hitzez osatuta dago. Euskal Herriko alu-masajeatzaile finenek sartu dute eskua liburuxka honetan, eta hitz berri bakoitza definitu dute, plazer handiz.

Oraindik honelako tratamendu asko beharko ditugu guztiz sendatzeko...



7 euro

48 salgai ditugu ARGIAren Azokan:
argitalpenak, mahai-jolasak, jantziak, ikus-entzunezkoak eta bestelakoak.
ARGIA Jendeak musutruk hartu ditzakegun gauzak ere badira!


Beste irakurgai berezi batzuk:



Hesola komikia

Lluís Llach en katalanera hitzak, Xabier Leteren euskarazkoak eta Cheij Badiaren erabierazkoekin osatua. Ilustrazioak: Alai Zubimendi.

2 euro



Illimani argazki liburua

Boliviara Evo Morales elkarriketatzera joandako bidaiatik Amets Arzallusek hitzez eta Txomin Txuekak argazkik ekarritako kontakizuna.

15 euro



Plastikozko loreak

22 kolaboratzaileen artean osatutako narrazio kolektiboa. Bakoitzak hasiera bat eta sartu beharreko bi hitz zehaztu dizkio hurrengoari.

10 euro

Harpidetza eredua Unibertsitateko adibide



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lizentziatua izanik ere tabernan lan egiteak ez duela kalterik egiten konturatu eta lan-mundura egin nuen salto, Master edo tesirik egin gabe, alegia, badira urte batzuk Unibertsitate mundutik aldendu nintzela; eta zer esanik ez ARGIAko lantaldeko kideak. Orain, gurean bekadun moduan jarduten dutenek kontatzen dizkigute ikasle abenturak. Eta gure harridurarako, aipatu digute Kazetaritza Graduak "Informazio enpresa" ikasgaiaren ARGIAren harpidetza eredua aztertu dutela.

Imanol Murua Uriak da irakaslea, eta honela adierazi digu: "erredakzioako lanekin zerikusia duten lanetan trebatzen dira ikasleak Kazetaritza Graduak beste ikasgai gehienetan; honetan, aldiz, hedabideak erredakzioa baino askoz gehiago direla jabetu daitezen saiatzen naiz. Helburua ez da kontabilitatean trebatzea, baina bai enpresa ereduak, diru kontuek eta abarrak, hedabidearen ezaugarriak eta bideragarritasuna goitik behera baldintzatzen dituztela jabetzea. Harpidetza eredu berria iragarri zenuen astean bertan aipatu nuen, ekimen ausarta eta berritzailea zela esateko. Mundu guztia negozio eredu egokiaren eta diru iturri berrien bila dabiltzan honetan, interesgarria iruditu zitzaidan merkatuaren ohiko logikatik ateratze hori eta ahal eta nahi duzuna eman eta nahi duzuna hartu proposamena egitea".

Ikasleen aurpegiak ikustea ere ederra izaten omen da, "poker aurpegia jartzen dute askok" dio Muruak, "nahi duzun



Imanol Murua Uriak EHuren Kazetaritza Graduak "Informazio Enpresa" ikasgaiaren azaltzen du ARGIAren kidetza eredu berria.

prezioan nahi duzun produktua hartzeko aukera hori ez baita oso ohikoa gure bizimodu honetan", eta euskarako eta gaztelerako ikasleen artean ere erreazioak desberdinak direla onartu digu. Hasieran harrituta, baina pixkanaka jakin-mina sortzen zaie batzuei, eta gaztelerako ikasleek ARGIA edo Berria bezalako euskarazko komunikabideak ezagututa bukatzen omen dute kurtsoa. Ez artikulu honetan, baina aztertze gaia da hau ere.

Adi! Ikasleren bat hau irakurtzen ari bada, aho txikiarekin kontatu digu lehengo urteko azterketako galderetako bat izan zela ARGIAren harpidetza eredua azaltzea. ■

ARGIAkoa egiterakoan emandako arrazoia:

"Aspaldi harpidedun izan eta gero, utzi eta gero berriz astero kazetaritza independentea irakurtzeko gogoia dudalako, eta berau laguntzeko nahia"

losu Errezola Gomez (Getxo)

ARGIA Jendeari musutruk eman: hori nola egiten da?

Aurreko astean jarri genuen martxan argia.eus-eko Azokan, ARGIA Jendeari nahi dioguna musutruk emateko aukera. Trukean ez dugu ezer materialik jasoko. Aukera horrek beste aldean ere ematen digu, noski, noiznahi argia.eus-en Azokan sartu, eta beste herritarren batek ARGIA Jendeoi emateko prest dagoen gairen bat hartzekoa.

Zerbait badut emateko, zer egin behar dut? Hona hemen 5 urrats errazetan:

1. Argia.eus-en Azokan sartu.
2. Goikaldean agertzen den "Eman" atala klikatu.
3. Hor agertzen den formularioa bete.
4. Argazkia gehitu.
5. Bidalketa nola egingo den aukeratu: "Bila etorri behar du" zure objektua nahi duenak? Bada markatu lauki hori. Horrez gain, prest zaude mezulariren baten bidez bidaltzeko? Horrela bada, markatu lauki hori. Oharra: mezulariren gastuak objektua hartuko duenak ordainduko dituela ulertzen da.

ARGIA Jenderen batek zuk eskaintzen duzuna hartu nahi duenean, zuri email bat iritsiko zaizu zuk eman duzun helbidera. Hortik aurrera, zure eta zuk eskaintzeko duzuna hartuko duen ARGIA Jende horren arteko harremana, zuena da. ARGIA ez da hor sartuko.



Jabier Muguruza

“Etengabeko txinpartan bizi gara, baina gauzak askoz zailagoak dira”

Formatu akustikotik urrunduz, gitarra elektriko eta elektronika soinuuz girotu du disko berria Jabier Muguruzak. Ez du errotikako aldaketetan fede handirik, ordea, eta *Leiho bat zabalik* lanean hor diraute bere ohiko ezaugarriak: erritmo pausatua, giro delikatuak eta isilune jolasak. Diskotik abiatuta, musika panoramaz, teknologia berriez edota bizi dugun garaia sintomez hitz egin dugu.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Gustura dago Jabier Muguruza disko berriarekin. Baita Mercedes Alvarez zinemagileak egin dion bideokliparekin eta orain arteko kontzertuekin ere. Urriaren amaieran argitaratu zuenetik, Ander Mujikarekin ari da zuzenean, orain artean ez bezala, noizean behin samplerrak sartuz. “Betidanik testuetan kontzentratu izan naiz, interpretazioan, hitz bakoitzak eskatzen didana ematean. Orain, horrez gain, adi egon beharra daukat samplerreko soinuak sartzeko”. Jo du Donostian, Durangon, Bilbon, eta laster doa Kataluniara. Azkenaldian inguru haietan bizi izan dutena ikusirik, eszenatokian mikro bat irekian jartzea otu zaio, elkertasunez. “Arazoa da batzuek esan didatela mikroa erabili nahi dutela, eta teknikariari kableatzeko eskatu beharko diot azkenean”, dio barrez. Urte berriko ostegun goiz batez harrapatu dugu guk, eta lehen kafe hurruparekin batera ekin diogu solasari.

Tonetti Anaiakeko jazz girotik urrundu zara oraingoan. Eta soinu berri bila Ander Mujikarengana eta Javi Vicente Carasueño-rengana jo duzu. Zergatik?

Uste dut egileari dagokion jarrera dela. Ni behintzat beti ibiltzen naiz hausnarrean eta bilaketan. Besteak beste, sen handiko musikarien bila. Uste dut badudala nire sen txikia musikari berezi horiek antzemateko, eta horri esker lan egin dudala musikari zoragarriekin. Ezagutu ditut pianista eta gitarrista onak, baina auzia ez da soilik kantuari armonia baten bidez laguntzea. Hori jende askok egiten du ondo. Hortik giro bereziak sortzera beste pauso bat dago. Mujikak eta Carasueñok egindako lanak entzutean iruditzen zitzaidan bazutela intuizio berezi hori. Eta egiaztatu ahal izan dut hala dela.

Nola egin duzue lan hiruron artean?

Metodikoa naiz, artista bainoago artisau errebindikatzen diren gehienak bezala.

Hitzak jaso, horiek nire egin, pianora jo, orduak eta orduak sartu –batzuetan tentel bat bezala arratsalde osoak galteraino– eta halako batean, hor bada kontu misteriotsuren bat, zerbait sortzen da. Noski, horren aurretik luze hitz egin nuen bi musikariekin. Saiatu nintzen azaltzen zer bilatzen nuen kante-tan, eta are, diskoan, orokorrean. Azaltzen hain zailak diren musika aferak eta kontzeptuak azaltzen saiatzen naiz. Pianoko ideia Mujikari bidali, handik pixka batera hark aurkeztu zidan bere lana, eta azkenik bidaltzen genion *Carasueño*-ri. Gero egin genuen lehen txangoa Zaragozara, eta luzaz izan ginen han hirurok. Nahiko ados geunden gauza gehienetan, beste batzuetan ez. Azken fasea izan zen nahasketena, udan. Han ere izan ziren desadostasunak.

Nola kudeatu zenituen desadostasun horiek?

Carasueño elektronika zale amorratua da, eta nire gusturako batzuetan gehiegi sartu nahi izaten zuen. Nire filosofia da biluztasunak asko ematen diola musikari. Hor izan ziren borrokatxoak, baina oso ongi moldatu ginen. Batzuetan tokatzen da amore ematea, eta besteetan zureari eustea.

Azken emaitzan, behintzat, biluztasunak hor dirau.

Eta horrek ez du kentzen bestea, ze badira leherketa indartsuak, gitarra disztorsionatuzko uneak, elektronikazkoak...

Eta tartean, Mireia Otzerinjauregiren ahotsa ere bai.

Baditut halabehar batzuk Leonard Cohenekin. Esaten didatenean berandu hasi nintzela, beti erantzuten diet: “Ei, Cohen bezala”. Cohenek beti izan du presentzia femenino hori, eta niri ere iruditzen zait ederra dela. Nire maskulinitateetik elementu femeninoa ere errendikatzen dut. Badut gogoia noizbait gai hauei buruz idazteko, ze iruditzen zait topikosfera nagusitik kanpoko beste topikosfera batean gabiltzala askotan euskal munduan. Ez bakarrik maskulinitateaz eta feminitateaz, beste hainbat gairi buruz ere bai. Eta nire adinean, nekatu egiten naiz.

Zerekin sentitzen duzu hori, zehatzago? Euskal munduan, oro har. Teknologia-

ren gaiarekin, adibidez. Ez dut teknologiaren kontra hasi nahi, eta gainera, ez da hori nire posizioa –oraintxe bertan baliatu naiz teknologiaz disko berria egiteko–. Baina horren harira ari dira garatzen zenbait diskurtso pobre. Adibidez, entzuten duzu: “Musikaren mundua demokratizatzen ari da”. Edo: “Inoiz baino gehiago irakurtzen da gaur egun”. Halako ideiak oso arriskutsuak dira, ze badute egiatik, baina gauza asko isiltzen dituzte, eta eramaten zaituzte ondorio oso arriskutsuetara. Esan dezagun dena, demokratizazio horrekin batera prekarizazio handia etorri dela, eta abar. Argazki orokorrako eta sakonago bat, mesedez. Ze nik hitz egiten dut gazte jendearekin, eta badakit ze baldintzetan ari diren kontzertuak ematen. Lehengo batean Espainiako Estatu mailan banaketan ibilbide luzea duen batek esaten zidan: “Demokratizazioaren kontu hau beste *bluff* bat da. Gero eta uniformeagoa da panorama”. Hori ikusi nahi ez duenak... Besterik da esatea gure ghettoxoan ahots asko ditugula. Baina goazen harago. Edo, bai, egia da inoiz baino gehiago irakurtzen dela. Baina horretan geldituko gara? Edo sakonduko dugu pixka bat, eta esango dugu aldi berean ze irakurketa mota ari den galtzen, horrek zer dakarkigun? Ez gaitezen sinplegiak izan.

Aipatzen dituzun ideia fetitxeen aldean, zer aldarrikatzen duzu?

Sentiberatasuna eta zentzu kritikoa. Horiek dira bi zutabeak. Baina zentzu kritikoa, benetakoa, ez Harkaitz Canok aipatzen duen ileapaindegi globala. Pauso hori ematen saiatzen ez bagara, arrisku batzuk ikusten ditut, eta kezkatzen nau. Baina ez dut hiperkritiko agertu nahi, ze hori ere ez da jarrera interesgarria.

Atxagak zioen akritiko baten antzik handiena duena hiperkritiko bat dela.

Orain dela gutxi entzun nion antzerako ideia bat: “Ez onartu kritika txarrik sekula kritika onik egingo ez lizukeenarengandik”, edo halako zerbait. Ados nago. Ez nuke hiperkritiko agertu nahi, ze hasteko eta behin, ni naiz egile bat gustura gelditu dena bere lanarekin, eta luxutzat hartzen duena gaur egun musikaz bizitzea. Baina kezka batzuk azaltzea ere logikoa da, eta sumatzen ditut kamustu samar sentiberatasuna eta zentzu kritikoa. Mila adibide jarriko

nituzke: non geratu diren Espainiako telebistan 70eko hamarkadan Julio Cortazar eta abarrekin egiten ziren ordu eta erdiko elkarrizketa haiek... Telebistako maila jaisten ari dela nabarmena da.

Itzul gaitezen diskora. Zortzi kantuak zortzi idazle desberdinek idatzi dituzte eta, oro har nahiko ilunak diren arren, kantu bakoitza iruditzen zait besteen oso tonu eta erregistro desberdinean idatzia. Nola egiten da ahots desberdin horiek guztiak norberaren bihurtzeko?

Kasu bakoitzean desberdin. Iñaki Iratzuri gai bat proposatzean, badakit sudur puntan jartzen zaiona egingo duela. Harkaitz Cano kokatuko nuke beste muturrean. Pasatzen diot gaia, garatzen du nik esaten diodanetik abiatuta, egiten dugu bazkari bat, hitz egiten dugu kultur panoramaz, eta ateratzen da letra hori, barbaroak eta abar agertzen direna... Gerardo Markuletarena, beste kasu bat: biok ama alzheimerarekin genuen, berea hil zen kanta grabatzen ari ginela eta gurea orain gutxi. Anjel Erro jarraitzen dut *Berrian*, asko gustatzen zait, ez da batere prebisiblea. Artikulu bat idatzi zuen spam-az, hitz egin nuen berarekin, idatzi zidan testua eta asko gustatu zitzaidan.

Bai, baina berriz diot, oso desberdinak iruditzen zaizkit testu guztiak, ahots bakoitzarekin sartzeko zailak.

Neurri batean ados nago, baina beste batean ez. Jaso ditut disko honetarako beste letra batzuk ere, inondik inora ere batasun horretan sartu ezin nituenak. Eta letra hauekin posible ikusten nuen obra bat egitea. Obraren batasunaren kontu horrekin, klasiko bat izaten jarraitzen dut. Literaturan berdin, iruditzen zait ipuinak ez direla inoiz kasualitatez kokatzen liburu batean.

Soinuari dagokionez, orain arteko ildotik atera zara pixka bat, eta sartu dituzu gitarra elektrikoak eta soinu elektronikoak. Zer bultzatuta?

Orain arteko hamalau diskoetan ildo jakin bat egon bada, hori izan da akustiko/elektriko-elektroniko binomioari dagokionez. Baina aurreko disko guztiak ez dira berdintsuak izan. Apustu oso desberdina da disko bat egitea Roberto Yabenen jazz estiloko gitarrekin, kontrabaxuarekin eta ahotsarekin, edo Anjel Unzuren giro biluziarekin, edo *Tonetti*



Anaiakeko giroarekin... Egia da orain-goan giro akustikoa alde batera utzi dudala, eta beste estilo batetako gitarra bat sartu dudala, zikinagoa, zakarragoa, lakarragoa. Eta elektronikara jotzea ere ustekabea izan da askorentzat. Uste dut aldaketak modu inkontzientean mami-tzen direla gure baitan, eta ez dakigula hori ondo arrazionalizatzen. Gari musikariari irakurri nion konfort gunetik ateratzeko premia zuela, eta zer pentsa eman zidan. Ze ni *Tonetti Anaiak*-en konfort gune absolutuan nengoen.

Konfortaren adiera positiboan ala negatiboan?

Hortxe dago koska. Giza errealtate gehienak anibalenteak dira, eta anibalentzia horretan mugitu beharra daukagu, nahiz eta askotan deserosoa izan. Oso gustura nengoen Mikel Azpirozekin. Sekulako musikaria da, harreman pertsonal zoragarria dugu. Bandarekin, zer esanik ez. Horrek badu alde on bat: gozatzen ari zara, eta ziur gozamen hori transmititzen diozula zure publikoari, bai obran eta bai zuzenekoetan. Txantxetan esaten nuen Chet Baker sentitzen nintzela talde horrekin. Baina zerbait esaten zidan espermentatu behar nuela, aldaketa behar nuela, eta horri gehitzen badiozu fitxatuta nituela Napoka Iria –eta bertako Ander–, eta *Carasueño* –Tulsaren lehen diskotik–...

Ez dakit hori guztia nola joan zen nire barruan forma hartzen, baina halako batean esan nuen: hau da momentua, egin beharra daukat. Tartean beldurrak, bertigoak... baina aurrera egin nuen eta pozik nago.

Disko berriko jauziaz ari gara, baina hitz egin dezakegu aldatu ez denaz, zure ohi-ko arrastoak hor jarraitzen baitu. Zure ibilbidearekin sintonian doan biraketa da, izatekotan.

Hala uste dut. Iritzi asko ari naiz entzuten, eta bakarren bat zeharo harritu den arren, gehienak hortik doaz: atmosfera aldaketa nabarmena da, baina segitzen du zure musika izaten. Konposizioa, interpretazioa, isiltasunekin jolasean aritzea... nire ibilbide guztiko filosofia hori dago. Are gehiago esango dut: egile serio samarra baldin bazara, aldaketak posible dira, baina erabateko aldaketetan ez dut sinesten. Badakit orain oso modan dagoela kontrakoa. Aste honetan bertan jaso dut e-mail bat esanez: “Espero dut urtea ongi hasi izana, eta bestela lasai, egunero has gaitezke zerotik eta”. Eran-tzun nion: “Kafe baterako utziko dugu eztabaida hori”. Oso modan dago mezu hori, egunero erabakitzen ditugu gure gauzak, gure nortasuna, sexua... baina oso planteamendu naif-a da. Hori da ez ezagutzea norbere izaerarik intimoena, eta nik bizitza horretan eman dut.

» “Nire maskulinitatetik elementu femeninoa ere errebindikatzen dut”

» “Iruditzen zait topikosfera nagusitik kanpoko beste topikosfera batean gabiltzala askotan euskal munduan”

» “Sumatzen ditut kamustu samar sentiberatasuna eta zentzu kritikoa”

Pello Lizarralde elkarriketa batean esan zidan ez dela fidatzen oso liburu desberdinak idazten dituzten idazleekin. Antzerira pentsatzen duzu musikariekin?

Erabat identifikatzen naiz ideia horrekin. Urte asko daramatzat lan honetan, eta susmoa dut publiko fidel bat izateko gakoetako bat hori dela, jendearentzat egiten duguna sinesgarria dela, nabari dela ofizioakoak garela. Errebindikatzen dut ofizioaren ideia, artisauarena. Galdetzen didate sarri: “Bi urtean behin beti lan berri bat ateratzen duzu?”. Ba bai, nik horrela funtzionatzen dut, egunero piano aurrean jarri eta lanean hasten naiz. Ez naiz artista bat, hitzaren zentzu fantastikoan. Miren Narbaizak orain gutxi *Berriako* elkarriketa batean esaten zuen bere ahotsa bilatzen ari zela. Ni ere aritu nintzen nire erre-gistroaren bila, baina behin garbi ikusi nuenean nondik jo behar nuen.

Alegia, dagoeneko ez zarela zeure burua berrasmatzen hasiko.

Ez dut sinesten eguneroko berrasmatzean. Badakizu zer dioen esaldi famatuak: “Horixe gara, umezaroa eta ez askoz gehiago”. Ez dut uste puntu horretaraino determinatuta gaudenik, baina gauza batzuk ukaezinak dira. Gaur egun etengabeko txinpartan bizi gara, ematen du edozer dela posible, baina ez, gauzak askoz zailagoak dira. ■



Santos Iñurrieta

Jolasaren askatasuna



Xabier Gantzarain
@gantzarain

'KE USTED LO PASE BIEN' SERIEKOA (2013)

Olioa oihalean. 200 x 200 cm

Jaioterrira itzuli zen iaz, aldi baterako bederen, Santos Iñurrieta de la Fuente (Gasteiz, 1950eko uztailaren 8a), Artiumen erakusketa eduki baitzuen, pasa den urtarrilaren 7ra arte, ikusi nahi zuen ororen gozamenerako.

Mallorcan bizi da 90eko hamarkadaz geroztik. Nabari du argian, berotasunean, giroan. Inbidia ematen du. "Goi-zeko seiak inguruan jaiki ohi da. Kafe bat edan eta paseatzera ateratzen da Menutekin. Etxera itzultzean beste kafe bat hartzen du, oraingoan Joanarekin eta txakur-talde guztiarekin. Porrutxo bat erretzen du. Gero, aldi berean margotzen ari den bospasei koadroei begira

egon ondoren bati heltzen dio. Hamar ordu baino gehiago ematen ditu horretan egunean". Halaxe dio bere biografiak, *Ke usted lo pase bien* erakusketako katalogoan. Inbidia ematen du.

Festa bat zen bere erakusketa, jendez eta animaliaz eta pintorez eta komikietako pertsonaiez eta izaki bitxiz betea, denak formatu handiko lanetan barreiatuak, koadro bakoitza, eta are erakusketa osoa, inoiz ezagutu den matrioskarik handiena bailitzan, jendeen barruan jende gehiago, etxeen barruan etxe gehiago, paisaien barruan paisaia gehiago. Inoiz agortzen ez den mundu bat, inoiz agertzen ez den bezala emana.

"Maite dituen guztiak gonbidatu ditu artistak festara eta triptiko handi haue-tan elkartu ditu". Francisco Javier San Martinek idatzi du katalogorako testu nagusia. "Iñurrietaren festara gonbidatuta daudenak, alor kubista-fauvis-ta-metafisikokoak dira gehienak, baina lotzen dituen elementu aglutinatzaileak –bilbe narratiboa– gertuago dago itxuraz surrealismotik, ideia-asoziazio automatikotik eta oihaleko espazioaren okupazio irrazional eta elkar gurutzatutik".

Artistaren jolaserako askatasun erabatekoak kaleidoskopio miragarria dakar. Eta argia, berotasuna, festa. ■

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hartz-kumearen abenturak



Xabier Etxaniz Erle

Gure literaturako gabezieta bat komikigintzan dugula esango nuke. Komikiak irakurtzeko oso tradizio txikia dugu (Hegoaldean) eta oso gutxi dira genero honetako argitalpenak euskaraz; horregatik eskertzekoa da Astiberri komiki-etxe bilbotar ezagunak eginiko apustua eta esfortzua beren lan batzuk euskaraz ere argitaratzen.

Waluk dugu azken ekarpena arlo horretan. Emilio Ruizen eta Ana Mirallesen artean eginiko elkarlanetako bat, hain zuzen. Ruizen gidoia eta Mirallesen irudiak dituen lan honek hitzaurre bat du hasieran, Ruizek egina, eta bertan galdera bati heltzen dio gidoilariak: “Zein duzu animalia gogokoena?”, eta hainbat animalia kontuak aipatu ondoren Ruizek zera diosku: “Ez dut nahi Artiko-ko hartzak desagertzerik. Hartz zuria da nire animalia gogokoena”.

Eta Artikoko hartz-kume bat, *Waluk*, dugu istorio honen protagonista. Izotzetan eginiko zuloan etorriko ez den amaren zain dagoen hartz-kumea. Eta zulotik irten ondoren munduari, mundu basati eta gogorrari aurre egin beharko diona. Hasieran bakarrik eta gerrogo Eskimo hartz handiaren ondoan.


Animalia eder eta handi hauen eguneroko bizitza ageri zaigu *Waluk* honetan; nola ibili behar diren elikatzeko, etsaiei eta beste-lako animaliei nola egiten dieten aurre, gizakion presentziak nolako eragina izan duen beren lurraldean. Kutsadura, turismoa, suntsiketa edo zientzia-

Waluk

ANA MIRALLES

Ilustrazioak: Emilio Ruiz
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri, 2017
48 orrialde
Gazteentzat

Ana Miralles idazlea
(*Madril*, 1959).



larien ikerketa agertuko zaizkigu, besteak beste, istorio entretenigarri eta gomendagarri hauetan. Abenturaz beteriko istorioetan, izan ere, egoera oso ezberdinetan, gosez, jolasten, preso... ikus baitezakegu gure pertsonaia.

Egia da animaliak direla liburu honetako protagonista nagusiak, baina animalia horien bidez, edo animalia horiei esker esan beharko genuke, gizakion jokabideaz egin dezakegu gogoeta. Lurra, Artikoa kasu honetan, nola hondatzen ari garen ikus dezakegu hartzen begiei esker, hartzen gogoeta eta jokabideei esker.

Baita nola aldatzen ari diren animalia horiek gizakion ekintzen eraginez ere. Bego Montoriok ederki itzultitako liburu hau (2011n argitaratu zen etxe berean gaztelaniaz) Astiberri etxearen komiki kate baten hamargarren maila dugu. Gero eta luzeago eta osatuago izango den katea! ■

» DISKOA

Posearen atzean



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara

Bibotea, osabaren armairutik berreskuratu-tako arropak, koreografia bitxiak, agertokian ikusleei bizkarra ematea, instrumenturik eta odol gabeko bideoklipa, diskoaren izenburua alemanez, *arty* kutsu handia... Zer da hau? Zahartzen ari naiz edo gazteriak bestelako oinarriak, erabat desberdinak, ditu? Biak! Bai, pose handiko garaiak bizi ditugu, tontakeria ere barra-barra batzuetan, baina badira horren guztiaren atzean gailentzen diren taldeak. Halakoa iruditu zait Vulk talde bilbotarra.


Taldekideek batez beste, 26 urte dituzte; dagoeneko hiruzpalau urte daramatzate proiektu honekin eta beraien gaztetasunari trufa eginez musika ezagutza handia erakusten dute. Lehen kolpean post-punk edo after-punk lerroburuan kokatu ahal dituzu, Joy Division ikur, baina azal azpian geruza gehiago agertzen dira eta emaitza oso-oso aberatsa da.

Beat Kamerlanden laukotearen lehen lan luzea da. Azala, kontrazala eta diskoaren galleta artista desberdinek eginak dira, jakina. Gainera, 80ko hamarkadako usadio bat gurera ekarriz, diskoak posterra dakar! *Unique position* hipnotikoa da tarteka, iluna eta pausatua. Andonik ingelesez abesterakoan duen dikzioa sinesgarria da eta kantuak magnetismoa dauka; sasi-elektro-

Beat Kamerlanden VULK

Elsa / Mayo Records, 2017

Vulk talde bilbotarra.



nikarekin jostari ia espiralean doa. *Something internal* hit! nabarmena da: erlojuaren pareko erritmo zehatza, riff minimalista baina sarkorra, teklatu ambientalak eta melodia borobil bat, akabera distortsionatuago, espazialago eta noise-ago bilakatu arte. *A contemporary statement*-ek erritmo aldaketa handiak ditu eta The Fall, Fugazi eta The Ex-en arteko biderketa dirudi. *Zaldia burning* beste klasiko bat da: instrumentalki oso aberatsa eta indartsua; Pixies presente badute ere, New Order-ek agintzen du.

B aldea *From found to stage* pilula instrumental laburrak irekitzen du. Horri jarraitzen dio *Sure drop* post-hardcore zapalgailuak, hazten, hazten eta garatzen doana Sheelac eta Hammerhead ezagutu arte, eta ondoren psikodelia eta sasi-elektronikaren gauan galtzen dena. *Hugo hall* noise-pop distiratsua da, itsaskorra eta dantzagarria. *Brazil*-ek ezinbestez mugiarazten zaituen erritmo eroa du eta harra-patzen zaituen melodia iluna baina kutsakorra. Disko ixteko ardura *Slow attack on canvas*, azidotan blaitutako Pixies. ■



Bidelagun bat *Gernikaren* zidorretan



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ESPAZIOAREN BARREA (GERNIKA) BISITA GIDATUA

Non: Donostian, San Telmo museoan. Noiz: Urtarrilaren 27an.

Erakusketa zabalik otsailaren 25era arte.

Larunbat goiza da. Eta han noa, itsas albotik, Urgull azpira, Jose Ramon Amondarainen *Espazioaren barrea (Gernika)* ikustera. Hamaikak jotzear sartu naiz San Telmoren, lehen aldia dudan arren, bai baitakit orduan direla euskarazko bisita gidatuak. Sarrerakoak aurkeztu dit bisita egingo didan langilea, dei dezagun, M.

“Badirudi zu bakarrik egongo zarela”, diost. Tira, sorbaldak jaso, eta atzetik noa. Ate bat igaro, eta erakusketan sartu aurretik, sarreratxoa egin dit M-k. “Jendeak uste du Picassoren *Gernika*-ri buruzkoa dela erakusketa, baina ez: J.R. Amondarainen erakusketa bat da. *Gernika* aitzakia baino ez da”.

Bidelagun bihurtu gara, hemen eta orain, M eta biok. Erakusketaren atarian gaude, eta egurrezko zortzi kaxa handi ditugu parean. 2012an, *Gernikaren* 75. urtemugan, Dora Maarrek artistari egin zizkion zortzi argazkiak margotu zituen Amondarainek *Gernikaren* ta-

mainan, Gasteizko Artiumerako. Picassoren oinordekoek jabetza eskubideak baliatuta, lanak kentzera behartu zuten. Bada, debekatutako oihal horiek daude kaxetan, azaldu dit M-k. Eta hor, lanok erakusteko ezinean eta arte sistemaren arrakaletan, ardazu du *Espazioaren barrea (Gernika)* Amondarainek.

Orain bai, erakusketa aurrez aurre daukagu. Eskuineko bidean, hiru koa dro daude –zuri-beltzean, koloretan eta kamuflaje koloretan–. “*Gernikaren* figurak ezin dira kopiatu, estiloa bai”, azaldu du antzekotasuna M-k. Hiru margolanetan azkena tamaina bikoi-tzekoa da. “Zergatik?”, diot. “Bisitaria txikiago sentiarazteko *Gernika* den ikonoaren aurrean”, dio. Ezkerraldean, olio lehertutako egindako eskultura txikiak daude zintzilik. “Macguffin-ak” direla dio M-k, aitzakia bat. Kiskalita dirudite, eta bonbardaketaren usain erreka dakarte. “Picassoren munduko sinboloak koadrotik atera ditu: mar-

goaren materializazioa”. Ados diot buruarekin, ukitzen dut ideia.

Jarraitzen dugu erakusketatik pasieran, eta, iruditzen zait, azkena erakutsi didanak harrapatu nauela gehien. Argazkiak dirudite, baina margolanak dira, ikusleak gurutzatu eta eztabaidan jarri beharrekoak: Reina Sofian *Gernika*-ren kontserbazioa egiten duen *Pablito* ordenagailua, Artiumeko sala bat, *Gernikaren* graffiti bat *Gernika* Espainiara heldu zenekoa, soldadu estatubatuarren Iwojima-n eta hala hamasei lan denera. “*Gernikaren* biografiari buruzko marrazkiak dira”, dio M-k.

Horrekin amaitutzat eman ditu azalpenak. Niretzat baino ez, eta, halere, gogo biziz aritu da. Arratsaldean beste bisita bat duela diost, espainolez, eta hor bai, talde majoa elkartu ohi dela. Horma kontrako aulki batera itzuli da M, eta ibilitako bidea desibiltzen joan naiz ni. Gomen-dioa esan gabe doa: otsailaren 25era arte ibili ahalko dira *Gernikaren* zidorrak. ■

Hitz gezidunak

	1 HAIZE TRESNA TE- KLATUDUNA ----- ORDULARIAK	1 MUSIKA NOTA (ALDERAN- TZIZ)	2 E.HERRIKO MENDIA	EGUZKI ----- MENDIKO ATEA	
	ZUHAITZ IZENA ----- 3				
IBILGAILU ASTUN ----- OSAGAI BAKARRA DUENA	SASTAKATUZ ----- LONAZKO ETXOLA			BELA- RRIAREN HANTURA ----- LAUGARREN KALIFA	ARKUA ----- USOAK
		OREKA LORTUZ ----- ADIO			
AZTIAK ----- ENE			GINAR (ALDE- RANTZIZ) ----- ALTSUMA		
		UNEKO EGUNEAN ----- LELO, ERGEL		ARNAS EZAK ----- HILA JARRI	
EZ GARDEN ----- GIPUZKOAKO HERRIA			TELEBISTA ITALIARRA ----- INTSEKTU HEGALARIA	IBAI B BARIK ----- IZAN, EDUKI	
	JUDUEN LIBURUA (ALDERAN- TZIZ) ----- NAIZEN HAU			ZATI TXIKI ----- ERRUSIAKO IBAIA	
		FITSIK, DEUS EZ ----- NOR, PLURA- LEAN			
	4 EZIN BUKA- TUZKOA				

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3 koadro bakoitzean errepikatu gabe.

	3				2			7
					8		2	
	2		1	6				
8					5		3	6
2								5
5	1		3					9
				4	3		6	
	6		9					
1			5				7	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Ekain (Bizkaian).
2. Aranondoaren fruitua.
3. Gau ona opa izateko.
4. Nehola.
5. Zereginak.

Ebazpenak

3	9	7
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	6	9
2	6	9
4	5	2
8	4	5
1	8	4
3	6	5
3	6	5
7	7	2
5	1	6
3	8	7
2	2	4
5	8	1
6	4	2
4	9	5
8	4	2
4	2	7
9	5	1
6	3	8
3	6	5
3	6	5
1	8	4

5. Lanak.

3. Gabon, 4. Inola,

1. Bagil, 2. Arana,

5X5:

				N	I	Z	E	V	K	U	B	
				V	N	V	M	I	K	A		
				K	I	T	U	T	I	N		
V	K	S	U	P			T	O	R	A	V	A
I	V	I		A	I		R	A	I	K	V	A
V	O	T	I	R	A		V	A	G	E	O	I
T	X	I	L	R	A		K	O	A	G	A	N
Z	U	T	A	E	K		R	O	N	U	K	B
U		O		K	A		V	T	A	S	K	
				S	T	I	O	R	O	G		
				A	U	J	D	R	L	O	E	
				E		M	D	O				

Dau García Dauder. Aniztasuna ikustarazten



“Gorputzen aniztasuna” da intersexualitatea García Dauderrentzat. “Lekzio bat”, haren hitzetan, gizon eta emakume eskematik harago bestelako gorputzak daudela erakusteko. Hain zuzen, logika dualista horri aurre egiten dihardu, bai militantzia arloan, eta baita akademian ere. Txikitatik aniztasuna erakustea nahiko luke, gizartearen begirada dualistarekin bukatzeko.

“Dualismoaren tirania birpentsatu beharko genuke”



Ander Perez
@ander_prz

ARGAZKIAK: INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Militantzia eta akademia

“Ekintzaile feminista eta psikologo soziala naiz. Hain zuzen, arlo horretako irakasle gisa dihardut, Madrilgo Errege Juan Carlos Unibertsitatean. Sexu eta genero dualismoak eragiten duen indarkeria ikustaraztera bideratu dut nire pedagogia eta ikerkuntza ibilbidea. Zientzietan emakumeek izandako papera azaleratzen ere jardun dut, eta horri buruzko bi liburu idatzi ditut. Intersexualitateen Nazioarteko Erakundearekin aritu nintzen, eta intersexualitate ezaugarriak dituztenenganako babes taldeetan ibili naiz. Gaiari buruzko liburuetan parte hartu dut, eta intersexualitateari buruzko material andana idatzi dut”.

Zeri deitzen diozu dualismoa?

Gizarteak sexuen naturalizazioa eraiki du. Berez bi sexu baino ez daudela esatea mito bat da, eta ez dator bat existitzen den aniztasunarekin.

Feminismoaren eraginez, geroz eta onartuagoa da generoa eraikia dela. Sexuaren kasuan, ordea, ontzat jotzen da naturala dela, eta bi besterik ez daudela.

Feminismoak, une jakin batean, bereizketa bat egin zuen, esanez batetik biologia dagoela, eta bestetik emakumearen eraikuntza soziala. Horren ondorioz, biologian bertan dagoen alderdi soziala ahaztu izan da. Ezin ditugu alderdi biologikoa eta soziala bereiztu. [Anne] Fausto-Sterling eta beste biologo feminista batzuen ikerketen ekarpen nagusia biologia dualismo hori baino askoz ere anitzagoa dela erakustea izan da, eta ez dagoela hain argi emakume biologikoa zertan oinarritu. Feminismoa, sarri, emakume guztientzako komunak ez diren ezaugarri biologikoetan oinarritu da.

Zein da biologiaren aniztasun hori?

Kromosomen aniztasuna, adibidez, ez da XX eta XY aukeretara mugatzen, askoz konbinazio genetiko gehiago daude, eta gainera, XX duen pertsona batek ez du zertan emakume sentitu, eta ezta gizon sentitu XY duenak ere. hormonekin antzera gertatzen da, eta berdin genitalekin ere: sarri ahazten zaigu zakila eta klitorisa egitura beretik datozela, eta beraz, gauza bera direla azken batean; testosterona kopuruen arabera egingo du alde batera edo bestera. Gauza zehatzetan ere ikus dezakegu, ilean, ahotsan, muskulturan. Dena bi laukitara mugatzeko joera dugu, baina aniztasuna askoz zabalagoa da. Presio sexuala, ordea, oso indartsua da, eta azkenean, dualismo horretara moldatzen bukatzen du aniztasunak.

Ebakuntzak dira dualismo horretara moldatzeko moduetako bat, eta kurioa da, genero eraikuntza normaldu, eta gorputza delako genero horretara moldatzen dena.

Feminismoaren abiapuntuaren arabera, sexua naturala da, eta generoa da erai-



*"Feminismoaren
abiapuntuaren arabera,
sexua naturala da,
eta generoa da eraikitzen
dena. Intersexualitate
kasuetan, ordea,
alderantziz izaten da".*

kitzen dena. Intersexualitate kasuetan, ordea, alderantziz izaten da. Hormonen eta zirugiaren bitartez, errazagoa da gorputzak aldatzea, arau dualistak aldatzea baino. Hala, gizarteak gorputz aniztasuna onartu dezan sustatu beharrean, pertsonak nahiago dituzte gorputz aldaketak, aldaketa sozial bat egon arte itxarotea baino –noski, egoerak ezinegon sortzen dielako–. Azkenean, gorputzak aldatzen dira, eta arau sozialak normaldu.

Genero identitatearekin lotu ohi dira genitalak. Ideia horren kontra aritzen zara zu.

Bai, hori baita gakoa, besteak beste, gurasoek uler dezaten neska bezala heziko duten ume bat inolako arazorik gabe garatu daitekela neska gisara, bere identitatea auzitan jarri gabe, zakil baten itxura duen klitoris izanagatik. Eta gakoa da transexualitateak derrigor norbere genitalak errefusatzeari dakarrela pentsatzeari utzi diezaiogun. Hau da, gerta daiteke pertsona batentzat bere genero identitatea eta jaiotzerakoan esleitu ziotena bat ez etortzea, baina ez sentitzea

bere genitalenganako inongo arbuiorik. Izan ere, identitatea ez da genitalen arabera.

Askok, hain justu, transexualitatearekin lotzen dute intersexualitatea, baina ez dira gauza bera.

Transexualitatearena identitate kontua da: ni modu batera izendatu ninduten jaiotzerakoan, baina beste gauza bat sentitzen naiz. Intersexualitatean ados egon zaitezke jaiotzerakoan emandako identitatearekin, baina ustez identitate horri dagokion gorputzarekin bat ez datarren gorputza duzu.

Feminismoak emakume subjektuaren ahalduzaren eta indartzearen alde egiten du. Intersexualitateak, ordea, dualismoa deseraiki nahiko luke. Bateria-riak dira?

Bi estrategia politiko dira, eta biei uko ez egitean datza gakoa, testuinguru bakoitzean erabakiz zein den komeni dena. Txikitatik landu behar dira biak. Askotan pentsatzen da: jarri ditzagun neskak eta mutilak elkarrekin kirol egiten, eta hala

bukatuko dugu dualismoarekin. Baina gero ikusten dugu halakoetan neskak kikildu egiten direla, eta ez dutela parte hartzen. Beraz, ustez dualismoarekin amaitu behar zuen horrek kontrako efektua hartzen du. Gakoa bi estrategietako bati ere uko ez egitea da. Paradoxiakoa izan liteke, baina ez dugu besterik.

Zein da dualismoarekin bukatzeko bidea?

Denoi eragiten digun kontua da, eta begirada dualista da kalte guztiak eragiten dituen. Dualismoaren tirania birpentsatu beharko genuke. Nik aniztasunaren pedagogiaz hitz egin izan dut. Aniztasuna erakutsi behar dugu, bai hedabideetan, eta baita gizartean ere. Medikuntzak bezalaxe, zuzenbideak jakin beharko luke mediku batek jaiotzerakoan esleitzen duen sexua beti izango dela behin-behinekoa. Pertsonaia lana erraztu beharko genieke, sexu edo izen aldaketa egiteko oztopoak izugarriak direlako. Eredu askotan ekitea da kontua. Eskoletan eragin behar da, eta txikitatik erakutsi dagoen aniztasuna. Egiturazko lana da. ■



Gorka Urtaranek ziurtatu du ez daukala Austin Powersen mozorroa jantzita

Inauteriak pasa ondoren, etsita agertu da Gasteizko alkatea prentsaren aurrea: "Jendeak ez dit sinesten esaten dudanean ez nagoela mozorrotuta. 'Hi, Gorka, noiz kenduko duk Austin Powersen mozorroa?', galdetzen didate gasteiztarrek goizero, Dato kalean barrena paseatzen naizenean udaletxera sartzeko. Oso gogorra da niretzat". Urtaranek institutu garaiko argazkiak erakutsi ditu prentsaurrekoan, garbi uzteko aspaldidanik daukala Powers pertsonaiaren antza, baina kasualitate hutsa dela. "Gainera, iruditzen zait *Big Bang Theory*-ko Leonarden antz handiagoa dudala. Ez dakit zergatik ez nauten harekin konparatzen", azaldu du.



SAREAN ARRANTZATUA

Hodor, hodor!



Bi hizkuntza jakitearen abantailak grafikoki azalduta



Urtu egin da negu hasieran Urduñan izoztu zen ETBko kazetaria

Elurtearen berri emateko Urduñako mendatera joan zen ETBko kazetari Izoze Urtxuegia urtu egin da, ia bi hilabete izozturik eman ondoren, errepide bazterrean kieto, bufanda lepuan eta mikroa eskuan. Koadrila batek erreskatatu du, paella egiteko baliatu ohi duten kanping-gasa izotz blokearen azpian jarrita. Urtu bezain pronto adierazpen mamitsuak egin ditu kazetariak: "Berri-ero egingo nuke. Profesionala naiz edoze-

rren gainetik. Ikusleek jakin behar dute elurra egiten duen aldiro elurra egiten duela, zuri eta hotza, bigun antzekoa batzuetan, gogorragoa besteetan, misteriotsua betiere". ETBko zuzendaritzak langilearen jarrera txalotu du: "Bekadunen lana asko estimatzen dugu eta Izozen horren lan txukuna egiten jarraituz gero, mariatxien emanaldiak kudeatzen laguntzen duenari kafe beroak egitera hel liteke".



ZULOAN

Bidaia bat AHT
eta lan-esplotazioan
barrena

Urko Apaolaza Avila



14 €

ARGIA
// LIBURUAK //

AHTko obren hesi laranja gainditu dugu

Lehen eskuko dokumentazio eta testigantzen bidez
egindako bidaia AHTko lan-esplotazioan barrena.

ARGIA eta Manu Robles-Arangizen elkarlanari esker argitaraturiko liburua.

ESKAERAK

www.argia.eus/denda | ☎ 943 371 545 | azoka@argia.eus

AHTzuloan



@AHTzuloan



www.argia.eus/blogak/zuloan



